| | |
|---|---|
| **2020KO EKAINAREN 25EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 25 DE JUNIO DE 2020.** |
| ============================== | ============================== |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **ALKATEA** | **ALCALDESA** |

Amaia Aguirre Muñoa and.

| | |
|---|---|
| **ALKATEORDEAK** | **VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE** |

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkatea Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzi eta erdietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve treinta horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

### 67.- GETXOKO UDALBALTZAK 2020KO MAIATZAREN 28AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2020ko maiatzaren 28an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

### 67- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA, CELEBRADA EL DÍA 28 DE MAYO DE 2020.

Se aprueba por unanimidad el acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 28 de mayo 2020.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

68.- ERREKLAMAZIOAREN EBAZPENA ETA AURREKONTU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEA BEHIN BETIKO ONARTZEA (GK 2020-01)

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

### 68.- RESOLUCIÓN DE RECLAMACIÓN Y APROBACIÓN DEFINITIVA DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA CA 2020-01

Proposamena irakurri ondoren Ignacio Uriartek erabakia aurkeztu du eta erreklamazioa ezesteko arrazoiak azaldu ditu, kontuan edukita finantzaketa-iturriak etxebizitzen promoziorako ezarritako kopuruen gerakinak zirela. Esan du xehetasun gehiago behar izanez gero, Udaleko Kontu-hartzailearen txostena aztertu daitekeela.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte presentando el acuerdo y explica las razones para desestimar la reclamación teniendo en cuenta que la financiación se obtenía de los remanentes destinados a la promoción de vivienda y para mayores detalles se remite al informe de la Interventora municipal.

Paula Amievak eskerrak eman ditu jasotako azalpen teknikoengatik, baina uste du erreklamazioa onar daitekeela. Otsaileko Osoko Bilkuran kontra egin zioten proposamenari; orain inbertsio handiak berrikusi behar dira, eta horrek aukera ederra ematen du erreklamazioa onar daitekeenez aztertzeko, dirua ez baita gastatuko 2020. urtean. Esan du ez dakitela finantzatutako jarduketen xehetasunen berri. Uste du erreklamazioa baietsi behar dela eta inbertsioak berrikusi behar direla; gainera, proiektuari buruzko informazio gehiago eskatu du.

Paula Amieva agradece las explicaciones técnicas dadas pero cree que es posible admitir la reclamación. En el pleno de febrero se opusieron a la propuesta y ahora es preciso revisar las grandes inversiones, por lo que es un gran momento para valorar la aceptación de la reclamación ya que no se va a gastar ese dinero el año 2020. Indica que desconocen los detalles de la actuación financiada. Cree que se debe estimar la reclamación y revisar las inversiones a la vez que pide más información sobre el proyecto.

Itxaso Masedak esan du erreklamazioari esker errore bat konpondu daitekeela. Kontu-hartzaileak esan du gobernu-taldearen proposamena zuzena dela eta, halaber, erreklamazioa onartu daitekeela. Krisian egonik, eta diru-sarrerak murriztuta, gobernu-taldeak, bere nagusikeriak bultzatuta, hiru milioi eurotik gorako inbertsioa mantenduko du Iban Nagusien Etxea eraisteko eta Batzokiaren irizpidea inposatzeko. Proposamenaren asmoa benetako xedea ostentzea da. Eraitsi nahi den eraikineko apartamentu batzuk hutsik zeuden eta ez ziren erabiltzen. Etxerik gabeko gazteek badakite egoeraren ardura EAJk daukala, ez baitu ezer egin gobernuan egon den berrogei urteetan; aitzitik, aldi horretan sustatzaileen alde baino ez du egin, ez du ezer egin alokairuko etxebizitzei buruz, eta esku hartu den tokietan ez da egin

Itxaso Maseda indica que la reclamación posibilita enmendar un error. La interventora indica que es correcta la propuesta del equipo de gobierno y también es posible asumir la reclamación. En una situación de crisis y de menores ingresos el equipo de gobierno, por prepotencia, va a mantener más de tres millones en una inversión que busca derribar la Iban Nagusien Etxea e imponer el criterio del Batzoki. La propuesta es para esconder la voluntad real. En el edificio que se pretende derribar había apartamentos vacíos que no se utilizaban. Los jóvenes sin vivienda saben que el responsable de esa situación es el PNV que no ha hecho nada en cuarenta años que lleva en el gobierno sino que se ha dedicado a favorecer a los promotores, no actuándose en la vivienda en alquiler y los sitios donde se ha actuado tampoco

zuzkidura-apartamenturik. EAJri galdetu dio ea zergatik ukatzen dien getxotarrei iritzia emateko aukera, bai EAJk sustatutakoarekin bat ez datozen alternatibei buruz, bai Euskaltegian eguneko zentroa eraiki eta Ibar Nagusien Etxea mantentzeari buruz. Uste du egungo egoeran 3,5 milioi blokeatzea ezin dela erabili gero denetariko murrizketak legitimatzeko.

se han construido apartamentos dotacionales. Pregunta al PNV por qué niega a los vecinos de Getxo que opinen sobre las alternativas existentes tanto la promovida por el PNV como la del mantenimiento del Ibar Nagusien Etxea con la construcción de un centro de día en el Euskaltegi. Opina que bloquear 3,5 millones en la actual situación no puede servir para luego legitimar cualquier tipo de recorte.

Keltse Eigurenek hitz egin du eta esan du eztabaida osoko bilkuran aurkeztutako proposamenari buruzkoa izan behar dela. Adierazi du erreklamazioa egin duenak ez duela zalantzan jartzen inbertsioaren xedea, baizik eta hura finantzatzeko modua. Proposamenaren alde egiten du Kontu-hartzailetzaren txostenak, ez baitu ikusi inolako eragozpen juridikorik. Berriz ere esan du bozketarako jartzen dena ez dela eraikinaren eraispena, ez 2020ko aurrekontua, baizik eta aurkeztutako erabaki-proposamena.

Keltse Eiguren interviene para centrar el debate en la propuesta que se plantea al pleno. Indica que el reclamante no cuestiona el destino sino la forma de financiar la inversión prevista. La propuesta está avalada por el informe de la Intervención que no observa ningún impedimento jurídico a la misma. Insiste que lo que se vota no es ni el derribo del edificio ni el presupuesto de 2020 sino la propuesta de acuerdo planteada.

Proposamena bozkatu da eta hauxe izan da emaitza: 14 boto alde (EAJ eta PSE-EE), 5 boto kontra (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 5 abstentzio (PP).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 5 votos en contra, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 5 abstenciones, PP.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

1.- Ezestea Jose María Gil Pondal jaunak 2020-01 KGren aurka aurkeztutako erreklamazioa, berori balio gabe uzteko eskatuz (13.954 zenbakidun erregistroa, ekainaren 8koa), horrelaxe dago jasota Kontu-hartzailetzaren txostenean. Txosten hori interesdunari jakinaraziko zaio.

1º.- Desestimar la reclamación contra el CA 2020-01 interpuesta por D. Jose María Gil Pondal, registro nº 13.954 de fecha 8 de junio, solicitando su anulación, según informe de Intervención que se notificará al interesado.

2.- Aurrekontu-aldaketa behin betiko onartzea, otsailaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez hasieran onartutako 2020-01 kreditu

2º.- Aprobar definitivamente la modificación presupuestaria mediante concesión de Crédito Adicional 2020-01 inicialmente aprobada mediante

gehigarriaren bidez. Aldaketa jendaurrean jartzeko epea amaitu ondoren, ez da ebazpen hau baino erreklamazio gehiagorik aurkeztu.

acuerdo plenario de 27 de febrero, siendo que expirado el plazo de exposición pública de la misma no se han presentado más reclamaciones que la presente a resolver.

3.- Hartutako erabakiaren berri ematea interesdunari, Jose María Gil Pondal jaunari, bai eta udaleko Kontu-hartzailetzari ere.

3º.- Comunicar el acuerdo adoptado al interesado, D. Jose María Gil Pondal, así como a la Intervención Municipal.

## LURRALDEA

## TERRITORIO

**69.- ZUGATZARTE ETORBIDEKO 61. ZENBAKIAN (ZUGATZARTEKO 5-6 BANATEKA ÁREA) DAGOEN LURZATIAN SESTRA AZPIKO LERROKADURAK EGOKITZEKO XEHETASUN-AZTERLANA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

**69.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA ADAPTACIÓN DE LAS ALINEACIONES BAJO RASANTE EN LA PARCELA SITA EN LA AVDA. ZUGAZARTE, 61 (ÁREA DE REPARTO 5-6 ZUGAZARTE).**

Proposamena irakurri ondoren, Iñigo Urkitzak bere edukiaren eta lortutako aldeko txostenen berri eman du, eta adierazi du ez dela inolako alegaziorik aurkeztu jendaurrean jartzeko fasean.

Tras darse lectura a la propuesta Iñigo Urkitza presenta la misma dando cuenta de su contenido y de los informes favorables obtenidos indicando que no se ha presentado ninguna alegación en la fase de exposición al público.

Proposamena bozkatu ondoren, honako emaitza hau lortu du: aldeko 19 boto, EAJ, PP, PSE-EE; 5 abstentzio, eh Bildu, Elkarrekin Podemos.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 5 abstenciones, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

LEHENENGOA.- Behin betiko onestea Elisabeth Pedrazuela andreak, INVERPROSA SL enpresaren izen eta ordezkaritzan, aurkeztutako xehetasun-azterketa, Zugatzarte etorbideko 61. zenbakian (Zugatzarteko 5-6 banaketa-area) dagoen lurzatian sestra azpiko lerrokadurak egokitzekoa. Kontuan hartu beharko ditu hasierako onarpenean jasotako zehaztasunak

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por Dña. Elisabeth Pedrazuela, en nombre y representación de INVERPROSA, S.L., para la adaptación de las alineaciones bajo rasante en la parcela sita en el nº 61 de la Avda. Zugazarte (Area de Reparto 5-6-Zugazarte”), debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la

aprobación inicial.

Berariaz agerrarazi behar da Ingurumen Administrazioko zuzendariaren 2019-10-02ko ebazpenaren bidez ingurumeneko txosten estrategikoa egin zela; txosten horrek zehaztu zuen ez dela aurreikusten xehetasun-azterketak eragin nabarmenik izatea ingurumenean eta, hortaz, ez dela ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar. Ebazpen hori 2019-10-31ko EHAAn argitaratu zen.

Se hace constar, de forma expresa, que por resolución de 02.10.2019, del Director de Administración Ambiental, se formula el informe ambiental estratégico que determina que no se prevé que el estudio de detalle vaya a producir efectos significativos sobre el medio ambiente, por lo que no es necesario que se someta a evaluación ambiental estratégica ordinaria. Esta resolución se publica en el BOPV de 31.10.2019.

BIGARRENA- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, jar ditzaketen errekurtsoak azalduz.

SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

## UDAL ORGANOEN KONTROLA

## CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

### ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

### ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

**70.- 1786/2020 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

**70.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 1786/2020 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Proposamena irakurri ondoren Paula Amievak hitz egin du eta esan du kezkatuta dagoela ikusirik merkatari gutxik egiten dutela bat honelako ekimenekin. Uste du ez dela beren errua. Merkataritzaren egoera txarra da, eta uste du sustapen honetako zehaztapenek ez dituztela behar bezainbat suspertu herritarrak. Hori dela eta, eskatzen du hitz egiteko

Tras darse lectura a la propuesta interviene Paula Amieva para indicar que lo que le preocupa es que hay pocas adhesiones de los comerciantes a este tipo de iniciativas y no cree que sea responsabilidad de ellos. La situación para el comercio es complicada y cree las determinaciones concretas de la promoción no han animado lo suficiente y por eso pide más dialogo

gehiago ukitutakoekin, zabaldu dadila ekimenarekin bat egiteko epealdia, eta har daitezela malgutzeko beste neurri batzuk.

con los afectados y que se amplíe el plazo para adherirse y se adopten otras medidas de flexibilización.

Ibon Rodríguezek esan du hausnar egin behar dela gai honetaz. Getxo bonuaren inguruko lehen proposamena egin zenetik ia hiru hilabete joan dira, eta ez dira egin gaiaz jarduteko aurreikusi ziren bilerak. Dirua behar da herriko ekonomia suspertzeko. Getxo bonua orain abiarazi da, dendak ireki zirenetik hilabete baino gehiago pasatuta, eta denden atxikimendua urria izan da. Batzorde informatiboan azaldu zen bezala, dendak kanpainarekin bat egiteko epealdia irekita mantendu behar da, baina horretarako arazo tekniko txiki batzuk konpondu beharko dira. Eskatu du talde guztien iritziak entzuteko merkataritza bultzatzeko neurriak ezarri aurretik. Kritikatu du Getxo bonua kanpaina egiteko dendariek uko egin behar izan diela emandako laguntza batzuei. Aipatu du talde politiko guztien proposamenak hartu behar direla kontuan, bai eta dendarienak ere, eta adierazi du dendariak bakarrik sentitu direla eta denok elkar hartuta heldu behar diegula merkataritzak dauzkan arazoei.

Ibon Rodríguez indica que debe realizarse una reflexión sobre esta cuestión. Desde la primera propuesta sobre Getxo bono han pasado cerca de tres meses y no se han producido las reuniones previstas para tratar este tema. Hace falta dinero para animar a la economía local. El Getxo bono se inicia ahora cuando ha pasado más de un mes desde que se reabriera el comercio y el nivel de adhesión de los comercios ha sido escaso y tal como dijeron en la comisión informativa es necesario que se mantenga abierto el plazo de adhesión de los comercios a la campaña aunque para ello haya que resolver pequeños problemas técnicos. Pide que se escuche a todos los grupos para adoptar medidas sobre el comercio. Critica que para realizar la campaña de Getxo bono han obligado a comerciantes a renunciar a unas ayudas que tenían concedidas. Recalca la necesidad de valorar las propuestas de todos los grupos políticos como de los afectados y manifiesta que los comerciantes se han sentido muy solos y hay que abordar de forma conjunta la problemática actual del comercio.

Ignacio Uriartek esan du proposamena dela transferentzia egitea Ekonomia Sustapeneko Sailari egingo den arlo bereko jarduketa batetik datorren kreditu batez baliatuz; horri esker Getxo bonurako ezarritako kreditua gehituko da. Onartu du gutxik egin dutela bat kanpainarekin, baina uste du oraindik badagoela astia gutxika-gutxika batu daitezen. Merkatari-elkarteekin harremanetan izan gara; izan ere, Getxo bonua elkarte horietako batek kudeatzen du. Uste du itxaron egin behar dela eta ikusi nola erabiltzen duten Getxo bonua herritarrek eta

Ignacio Uriarte indica que la propuesta se refiere a una transferencia al departamento de Promoción Económica con un crédito que proviene de una actuación que no se va a realizar y que estaba adscrita a la misma área y con este crédito se aumenta el crédito destinado al Getxo bono. Reconoce que aún la adhesión no es importante pero hay plazos para que se puedan ir incorporando. Ha habido contacto con las asociaciones de comerciantes, y de hecho, el Getxo bono lo gestiona una asociación de comerciantes. Cree que hay que ver cómo evoluciona el uso del

dendek, eta gero ondorioak atera hurrengo beste jarduketa batzuetarako.

Getxo bono por la ciudadanía y los comercios y de ahí sacar conclusiones para aplicar en futuras actuaciones.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Jakitun egon transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren dekretu hau:

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

1786/2020 zenbakidun Dekretua 73.064,00 euroko zenbatekoarekin. 2020/06 kreditu-transferentzia. Getxoko udalerriko establezimenduetan tokiko kontsumoa sustatzeko ezohiko laguntza deialdia, COVID19ak eragindako krisi-egoeraren ondoren: Getxo Bono 2020.

Decreto nº 1786/2020 por un importe de 73.064,00 euros. Transferencia de crédito 2020/06. Convocatoria de ayuda extraordinaria para impulsar el consumo local en los establecimientos del municipio de Getxo tras la situación de crisis ocasionada por el Covid19: Getxo Bono 2020.

**71.- 1835/2020 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

**71.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 1835/2020 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Jakitun egon kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau:

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

1835/2020 zenbakidun Dekretua 688.059,30 euroko zenbatekoarekin. 2020/04F kreditua gaitzea. COVID 19k eragindako osasun-krisiaren ondoriozko gizarte-larrialdietarako laguntzen gastua handitzea.

Decreto nº 1835/2020 por un importe de 688.059,30 euros. Habilitación de crédito 2020/04F. Incremento del gasto de Ayudas de emergencia social derivadas de la crisis sanitaria COVID 19.

**72.- 2020-07-12KO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDERAKO HAUTESKUNDE-MAHAIETAKO**

**72.- DACIÓN DE CUENTA DEL SORTEO DE MIEMBROS DE MESAS ELECTORALES DE LAS PRÓXIMAS ELECCIONES AL PARLAMENTO**

**KIDEEN AUKERAKETARAKO ZOZKETAREN BERRI EMATEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Javier Elorzak hartu du hitza, eta adierazi du hauteskunde hauetarako hiru hautesleku berri sortu direla. Hori positiboa iruditzen zaio, irisgarritasun-arazoak dituzten beste batzuk ordeztu ahal izateko espazio gehiago jarri behar zirelako, igogailu berberetan erabili behar direlako. Hauteslekuen kokapenari buruzko hausnarketa egiteko eskatu du, irisgarritasun arazoak kontuan hartuta.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta:

Hurrengo Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderako hauteskunde-mahaietako kideak aukeratzeko 2020ko ekainaren 15ean egindako zozketako emaitzen jakitun egon, espedientean ageri diren bezala.

**VASCO DE 12/07/2020.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Javier Elorza que manifiesta que para estas elecciones se han creado tres colegios electorales nuevos, lo cual le parece positivo que había que haber habilitado más espacios nuevos que puedan sustituir a otros que tienen problemas de accesibilidad ya que hay que utilizar en los mismos ascensores. Pide que se haga una reflexión sobre la ubicación de los colegios electorales teniendo en cuenta los problemas de accesibilidad.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Quedaron enterados del sorteo de miembros de mesas electorales de las proximas elecciones al Parlamento Vasco, celebrado el 15 de junio de 2020, cuyos resultados obran en el expediente.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**73.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ZABORREN ETA ESTOLDERIAREN TASAK JAISTEA COVID-AREN ERAGINPEAN DAUDEN SALTOKI ETA OSTALARIEI.**

Eduardo Andradek ondorengo mozioa irakurri du:

COVID-19aren pandemiak sortutako ezohiko egoerak alarma eta osasun-larrialdiko egoera deklaratzea eragin zuen, eta ezohiko eta presazko zenbait neurri hartu beharra eragin du.

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**73.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA REBAJA DE TASAS DE BASURAS Y ALCANTARILLADO A LOS COMERCIOS Y HOSTELEROS AFECTADOS POR EL COVID.**

Eduardo Andrade da lectura a la siguiente moción:

La situación extraordinaria generada por la pandemia del COVID-19 desencadenó la declaración del estado de alarma y de emergencia sanitaria y ha determinado la adopción de diversas medidas de carácter extraordinario y urgente.

Ikuspegi ekonomikotik, pandemiaren eragin ekonomikoa eta ondorioen iraupena politika publikoen arrakastaren araberakoa da, besteak beste, zerga-, tributu- eta aurrekontu-politikena.

Desde el punto de vista económico, el impacto económico y la duración de los efectos de la pandemia depende crucialmente del éxito de las políticas públicas, entre otras las fiscales, tributarias y presupuestarias.

Administrazio publikoek arau-tresnak izan dituzte eta, horiei esker, zerga- eta tributu-arloko hainbat neurri hartu ahal izan dituzte, enpresarentzat eta, bereziki, autonomoentzat, sektore horiek jasan dituzten ondorio ekonomikoak arintzeko; izan ere, arlo horiek bereziki zigortu ditu krisiak eta oso garrantzitsuak dira jarduera ekonomikoan, enpleguaren sorreran eta mantentzean.

Las Administraciones Públicas han contado con instrumentos normativos que les ha permitido adoptar diversas medidas en materia fiscal y tributaria para tratar de paliar las consecuencias económicas para la empresa y, en especial, para los autónomos, singularmente castigados por esta crisis y tan importantes en la actividad económica, la creación y mantenimiento del empleo.

Getxon, merkataritza eta ostalaritza oso garrantzitsuak diren herrian, hainbat neurri hartu dira laguntza hori emateko baina, gure ustez, laguntzak, berandu emateaz gain, motz geratu dira.

En Getxo, un pueblo eminentemente comercial y hostelero, se han adoptado una serie de medidas para su apoyo pero a nuestro entender las ayudas, además de tardías, se han quedado cortas.

Gure ustez, gehiago egin daiteke eta egin behar da gure merkataritza eta ostalaritzari laguntzeko, horien establezimenduak itxita egon direlako pandemiak iraun duen bitartean.

Consideramos que se puede y se debe hacer más para apoyar a nuestro comercio y hostelería, que ha permanecido cerrado durante la pandemia.

Popular Udal Taldeak uste dugu gure merkataritza-lokalen gastuak murriztu egin behar direla eta murriztu egin daitezkeela, eta horregatik proposatzen dugu 2020ko azken hiruhilekotik Zaborra eta Estolderia tarifa % 75 jaistea, eta 2021ean zehar % 50 jaistea.

Desde el Grupo Municipal Popular consideramos que se debe y se puede reducir los gastos de nuestros locales comerciales y por eso proponemos realizar una rebaja del 75% de la tarifa de Basuras y Alcantarillado desde el último trimestre de 2020 y del 50% durante el año 2021.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran aztertua izan dadin.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PPROPUESTA DE ACUERDO para su elevación a Pleno

LEHENENGOA.- ZABORRA BILDU, GARRAIATU ETA TRATATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN gure

PRIMERO.- Que se inicien los trámites necesarios para incorporar a nuestra ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR

ORDENANTZA FISKALEAN tarifa murriztu berri gisa (5.2 artikulua) osasun-alertan itxita egon diren enpresa- edo merkataritza-zergadunei (2. eta 4. taldeak) aplikatzeko izapideak hastea; murrizketa hori aplikatuko da katastro-balioa 225.000 eurotik gorakoa ez duten lokaletan. Lehenengo urtean, % 75eko murrizketa aplikatuko zaio dagokion tarifa orokorrari. Bigarren urtean zehar bidezko tarifa orokorraren % 50ekoa izango da murrizketa.

RECOGIDA DE BASURA, TRANSPORTE Y TRATAMIENTO como nueva tarifa reducida (artículo 5.2) aplicable a aquellos contribuyentes empresariales o comerciales(grupos 2 y 4) que hayan permanecidos cerrados durante la alerta sanitaria, en locales cuyo valor catastral no supere los 225.000 euros. Durante el primer año se aplicará una reducción del 75% sobre la tarifa general correspondiente. Durante el segundo año la reducción será del 50% sobre la tarifa general correspondiente.

BIGARRENA.- ESTOLDERIAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN gure ORDENANTZA FISKALEAN tarifa murriztu berri gisa sartzeko izapideak hastea (5.2 B artikulua), osasun-alertak iraun bitartean itxita egon diren tabernetako edo antzeko merkataritza-lokalei aplikatzekoa. Murrizketa hori katastro-balioa 225.000 eurotik gorakoa ez duten lokaletan aplikatuko da. Lehenengo urtean % 75eko murrizketa aplikatuko zaio tarifa orokorrari, eta bigarren urtean zehar % 50ekoa dagokion tarifa orokorrari.

SEGUNDO.- Que se inicien los trámites necesarios para incorporar a nuestra ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR ALCANTARILLADO, como nueva tarifa reducida (artículo 5.2 B) aplicable a aquellos locales comerciales bares o similar que hayan permanecidos cerrados durante la alerta sanitaria, en locales cuyo valor catastral no supere los 225.000 euros. Durante el primer año se aplicará una reducción del 75% sobre la tarifa general y durante el segundo año la reducción será del 50% sobre la tarifa general correspondiente

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri ematea dagokion udal-komunikabideetan.

TERCERO, Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales correspondiente.

Eduardo Andradek esan du Udala berandu ibili dela merkatariei eta ostalariei laguntzen, eta lagundu ere gutxi lagundu diela. Zergen arloan ez da ezer egin, zenbait proposamen aurkeztu arren. Adierazi du ez dagoela batere argi nola likidatuko diren terrazen tasak, ez eta terrazak handitzeagatik zenbat kobratuko den ere. Getxo bonuaren kanpainarekin 172k egin dute bat; kontuan edukita guztira 3.000 inguruk egin lezaketela, argi dago porrota izan dela. Esan du zerga-laguntzak eman litezkeela zabor-bilketaren eta estolderiaren tasetan, eta

Eduardo Andrade indica que el ayuntamiento ha hecho poco y tarde en la ayuda a comerciantes y hosteleros y nada se ha hecho en el tema fiscal pese a las propuestas que se han ido presentando. Manifiesta que tampoco está claro cómo se van a liquidar las tasas de las terrazas ni lo que se va a cobrar por la ampliación de las mismas. En la campaña de Getxo bono se han apuntado 172 de cerca de 3000 posibles inscritos, lo que indica que ha sido un fracaso. Plantea unas ayudas fiscales a las tasas de basura y alcantarillado que aún se está a tiempo para tramitar para

oraindik garaiz dabiltzala izapideak egin eta laguntzok eragina edukitzeko urteko azken hiruhilekoan. Esan du tasa hori inguruko altuenetakoa dela, eta hori frogatzeko beste udalerri batzuetako tasen berri eman du. Berriz ere esan du badagoela astia mozioan eskatzen dena aplikatzeko.

que tengan efecto el último trimestre de este año y plantea sobre esta tasa porque es una de las más altas del entorno y para justificar da datos de estas tasas en otros municipios. Insiste en que hay tiempo de poner en práctica lo que pide la moción.

Paula Amievak uste du orain arte ezarritako neurriak ez direla aski izan, eta esan du neurri gehiago behar direla, eta hobeak. Uste dute ordenantza aldatu behar dela egungo egoerara eta etorriko denera moldatzeko. Uste du onuradunen arteko mailak ezarri behar direla bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera. Proposamena bera ondo iruditzen zaie, baina badaude gauza batzuk aztertzeko modukoak, ezarritako muga, esate baterako; gainera, irizpide gehiago aplikatu behar lirateke. Uste du neurri horiek alderdi guztiek batera aztertu behar lituzketela, laguntza teknikoarekin, eta nahi luke gobernu-taldearen proposamena betetzea, hau da, baterako analisirako esparrua sortzea.

Paula Amieva considera que las medidas tomadas hasta ahora han sido cortas y hacen falta más medidas y mejores. Ven necesario revisar la ordenanza para adaptarse a la situación actual y también a la futura. Cree que hay que discriminar entre los posibles beneficiarios en base a situaciones económicas. La propuesta concreta la ven bien aunque algunas cuestiones podrían ser matizables, como por ejemplo el límite fijado y habría que incorporar más criterios. Cree que estas medidas habría que analizarlas conjuntamente entre todos los grupos y con apoyo técnico y espera que se cumpla la propuesta del equipo de gobierno de crear ese espacio conjunto de análisis.

Carmen Díazek esan du PPk aurkeztu duen beherakada zuzeneko laguntza izango litzatekeela, batez ere jabeentzat, eta ez dagoela argi gero haiek establezimenduetan jardunean ari direnei helaraziko lieketen ala ez. Gobernu-taldeak herriko ekonomia sustatzeko zer egin duen azaldu du, eta esan du hori guztia kontuan hartuta mozioaren kontrako botoa emango dutela.

Carmen Díaz indica que una rebaja como la que plantea el PP supone una ayuda directa fundamentalmente a los propietarios y no está claro que esa ayuda la trasladarían a aquellos que realizan la actividad en los establecimientos. Da cuenta de las actuaciones del equipo de gobierno sobre la incentivación de la economía local y que en base a lo expuesto se opondrán a la moción.

Ibon Rodríguezek esan du maiatzaren 27an, taldeen bilera batean, EAJk adierazi zuela topaketa-esparru hori mantentzeko konpromisoa hartzen zuela. Uste du gai hau bertan eztabaidatu behar litzatekeela. Batzordearen azken saioan EAJren eledunak esan zuen bilera baterako

Ibon Rodríguez indica que el 27 de mayo en una reunión de los grupos el PNV anunció el compromiso de mantener ese marco de encuentro y cree que en ese marco se debe debatir este tema. En la última comisión el portavoz del PNV indicó que se convocaría una reunión y pese a que ha

deialdia egingo zela; harrezkero hilabete baino gehiago pasatu da, eta oraindik ez da egin deialdirik. Adierazi du ekonomia sustatzeko laguntzen guztirako zenbatekoa 1.900.000 euro dela, eta ez 3, 5 milioi, gobernu-taldeak dioen bezala. Ez dute ikusten gobernu-taldearen konpromisorik alderdi guztiek batera lan egiteko. Berez, EH Bildu ez dago tasak eta zergak jaistearen alde, baina ezohiko egoeretan ezohiko neurriak ezarri behar dira; halako neurri batzuk planteatu zituen EH Bilduk martxoaren 18an, eta ez ziren onartu. Ondo deritzo proposamenari, baina gauza batzuk aldatu daitezke, eta uste du hori lehen aipatutako alderdi politikoen eta teknikarien baterako lanerako esparru horretan eztabaidatu behar litzatekeela. Nolanahi ere, esparru horretan jarduteko deialdirik egin ez denez, aldeko botoa emango dute.

Ignacio Uriartek esan du PPren eledunak tarifen inguruan eman dituen datuak ez datozela bat zerga-ordenantzetan agertzen direnekin. Ekainean udal talde guztiak batu ziren teknikariekin zergak aztertzeko; orduan agindutako bilera behar diren datuak bildu bezain laster egingo da. Adierazi du gobernu-taldearen irizpidea dela ez kobratzea egin ez den zerbitzurik; beraz, zerbitzu bakoitza nola egin den aztertu behar da. Tasak jaistea erabaki ekonomikoa da, eta ondorioak edukiko ditu aurrekontuan; horrenbestez, kontuan eduki behar da nolako eragina eduki lezakeen aurrekontuan ezarritako laguntza publikoetan. Uraren, zabor-bilketaren eta estolderiaren tasari dagokionez, lortu diren datuen arabera onuradunak lokalen jabeak izango dira batik bat, berak baitira ordainagiriak kargatzen diren kontuen titularrak; ondorio horretara heldu dira Ur Partzuergoak emandako datuak aztertuta.

pasado más de un mes aún no se ha convocado. Manifiesta que las ayudas a la promoción económica son de 1.900.000 euros y no de 3, 5 millones como dice el equipo de gobierno. No ven compromiso del equipo de gobierno con trabajar en un marco en el que participen todos los grupos. En principio EH Bildu no es partidario de bajar tasas e impuestos pero en momentos excepcionales es necesario adoptar medidas excepcionales como las que EH Bildu planteó el 18 de marzo que no han sido aceptadas. Le parece bien la propuesta aunque puede ser modificable en algún aspecto, indicando algunos aspectos mejorables y cree que esas cuestiones se deben debatir en el marco antes indicado que posibilita la participación de los grupos políticos y del personal técnico pero ante la falta de convocatoria de ese marco van a votar a favor.

Ignacio Uriarte indica que respecto a los datos dados sobre las tarifas por el portavoz del PP no se ajustan a lo que se recoge en las ordenanzas fiscales correspondientes. En junio se reunieron todos los grupos municipales con los técnicos para analizar la cuestión tributaria y la reunión que se ha prometido se celebrará cuando se tengan los datos necesarios. Manifiesta que el criterio del equipo de gobierno es no cobrar los servicios que no se han prestado y por ello hay que analizar cómo ha sido la prestación de cada uno de los servicios. Rebajar las tasas supone una decisión económica que tiene efectos en el presupuesto y por tanto hay que analizar los efectos que puede tener en las políticas públicas de ayudas que contengan en el presupuesto. En la tasa de agua, basuras y alcantarillado los datos que han podido obtener indican que se beneficia mayoritariamente a los propietarios de los locales ya que son ellos los titulares de las cuentas en los

que se cargan los recibos, conclusión a la que han llegado después de analizar datos facilitados por el Consorcio de Aguas.

Eduardo Andradek argibideak eman ditu: urteko kuotez aritu da; beraren taldea bat dator zerga-ordenantzetan ezarritako tarifekin. Atzera ere esan du ezen, aurkeztutako datuak kontuan hartuta, Getxoko tasak inguruko altuenak direla. Onura jabeentzat izango dela esatea ez da zuzena, jakina baita ohikoa dela zabor-bilketaren, ur-horniduraren eta antzekoen ordainagiriak maizterren kontura izatea. Gainera, ez da logikoa batetik esatea ez dela proposamenaren alde egingo jabeen onurarako izango litzatekeelako eta, bestetik, gobernu-taldeak diru-laguntzak ematea denda berri baten jabeei, Getxolanen ikastaroa egin ondoren; izan ere, onura hori karguak egiten diren kontuaren titularrak jasoko du, eta kasu gehienetan jabea da.

Eduardo Andrade clarifica que él se ha referido en todo momento a cuotas anuales y que respetan las tarifas que vienen reguladas en las ordenanzas fiscales e insiste que con los datos aportados son las tasas más superiores de todo el entorno. Indicar que se benefician los propietarios no es correcto ya que es conocido en la práctica habitual que los recibos de basuras, aguas y similares los acaba pagando el inquilino. Además es contradictorio decir que no se asume la propuesta porque supone beneficiar al propietario y que el propio equipo de gobierno dé subvenciones a propietarios de un nuevo comercio después de haber hecho un curso en Getxolan y ese beneficio lógicamente se aplica al titular de la cuenta donde se realiza el cargo que mayoritariamente son propietarios.

Paula Amievak esan du Getxon bizitzea garestia, eta denda bat edukitzea ere bai. Ez dute uste iragarritako bilera egingo denik; denbora igaro ahala, dendariak geroz estuago daude. Bilera uztailean da egitekoa, baina dendariek zalantzak dauzkate horrelako bileren eraginkortasunaz eta erantzunaz.

Paula Amieva manifiesta que vivir en Getxo es caro y también es caro tener un comercio. Desconfían de que se celebre la reunión anunciada y el paso del tiempo supone más ahogo para los comercios. La reunión se prevé para julio pero los comerciantes dudan acerca de la efectividad y respuesta que puedan derivarse de esas reuniones.

Ibon Rodríguezek esan du PPren eledunak urteko zenbatekoa aipatu dituela eta, beraz, gobernu-taldearen eledunaren kritikaren arrazoia izan dela ez dela adi egoten oposizioak hitz egiten duenean. Tasa jabeari kargatzen zaio, baina egia da normalean maizterrak ordaintzen duela. Bileraren zain gaude, eta beren asmoa gauzak lortzea da, hau da, adostasunera heltzea eta aurrera egitea. Berretsi du mozioaren alde egingo dutela.

Ibon Rodríguez indica que el portavoz del PP se ha referido a cuantías anuales por lo que la crítica que le ha realizado el portavoz del equipo de gobierno se debe a que no escucha las intervenciones de la oposición. La tasa se gira al propietario pero es cierto que generalmente ésta la abona el inquilino. Están esperando a la reunión con voluntad constructiva para poder consensuar y avanzar y se ratifica en el apoyo a la moción.

Ignacio Uriartek erantzun du datuek erakusten dutela kasu gehienetan (% 80 baino gehiago) tasak lokalen jabeen kontuetan kargatzen direla. Hori berresteko, datuak eskatu dituzte, eta ondorioa izan da laguntza jabeentzat izango litzatekeela eta ez litzatekeela egongo bermerik batere onura maizterrei edo jarduera egiten dutenei helarazteko, nahiz eta pentsatzeko izan kasu askotan hala gertatuko litzatekeela. Berretsi du bilera uztailean egingo dela.

Ignacio Uriarte replica que los datos indican que mayoritariamente, más del 80%, las tasas se cargan en cuentas de los propietarios de los locales y para confirmar eso han pedido los datos y de ahí se deduce que la ayuda iría en primer lugar al propietario sin garantía de que traslade a los inquilinos o a los explotadores de la actividad aunque en muchos casos supone que se trasladará. Se ratifica en que la reunión se va a celebrar en julio.

Mozioa bozkatu dute eta ezetsi egin da: 10 boto alde (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 14 boto kontra (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 10 votos a favor, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE.

**74.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: BIDEGORRIAK ERABILTZEKO ARAUDIA.**

**74.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA NORMATIVA PARA EL USO DE BIDEGORRIS.**

Javier Elorzak ondorengo mozioa irakurri du:

Javier Elorza da lectura a la siguiente moción:

Udalerri gehienetan, gure ingurukoak barne eta, seguruenik, lokomozio-bide osasungarri eta ez-kutsatzaile bat sustatzeko interesa dela eta, gero eta ohikoagoa da bidegorriak ezartzea; hasiera batean azpiegitura eta bide horiek bizikleten zirkulaziorako pentsatuta daude. Gure udalerria ere ez dago errealitate horretatik kanpo eta horrelako azpiegiturak gero eta gehiago hedatzen eta ezartzen ari da. Beste alde batetik, gizarte-erabilerek gero eta garraiobide desberdin gehiago eskaintzen edo gehitzen dizkiote bizikleta klasikoari, hala nola bizikleta motorduna, patinete elektrikoa, patinak, etab.

En la mayoría de los municipios, incluidos los de nuestro entorno y seguramente por un interés en fomentar un medio de locomoción saludable y no contaminante, son cada vez más frecuentes la implantación de bidegorris, que en principio están pensados para la circulación de bicicletas; Nuestro municipio no es ajeno a esta realidad, cada vez se incrementa más su expansión y establecimiento. Por otro lado los usos sociales cada vez aportan nuevos medios de transporte diferentes a la clásica bicicleta, como puede ser la bicicleta con motor, el patinete eléctrico, patines etc.

Bidegorriek berezko seinaleak dituzte, nahiz eta gure udalerrian seinaleztapen

Los bidegorris tienen una señalética propia aunque en nuestro municipio es

hori urria den eta dagokion ordenantzan ia agertu ere ez den egiten horri lotutako udal-araudirik. Seinale horiei buruzko aipamenak udal-bideen araudian oso urriak ez ezik, azalekoak baino ez dira eta, nolanahi ere, ez du batere garrantzirik eta ez du balio gure udalerrian bide horiek benetan erabiltzeko.

escasa y su regulación municipal en la ordenanza correspondiente es prácticamente inexistente. Su mención es accidental en la normativa de vialidad municipal y en todo caso absolutamente irrelevante para el uso que realmente se está haciendo en nuestro municipio de estas vías.

Beste alde batetik, gaur egun bidegorriak denak balio duen gune bihurtu direla ikus dezakegu; hau da, de facto, bidegorriek bizikletak (ohikoak eta motor elektrikodunak), patinak, patinete elektrikoak, korridoreak eta baita gurpil-aulkiak ere… ibiltzeko bide mota osatzen dute. Era berean, ikus dezakegu bide horien erabiltzaileek ez dutela inolako errespeturik ezarritako seinaletikarekiko eta, zehatzago esanda, zebrabideekiko. Ildo horretatik, oinezkoak, baita zebrabideetan ere, harrapatu dituztela jakin dugu.

Por otro lado podemos ver que los bidegorris se han convertido al día de hoy en unos espacios en los que todo vale; es decir, de facto, los bidegorris conforman un tipo de vía por donde circulan tanto bicicletas (convencionales y con motor eléctrico) como patines, patinetes eléctricos, corredores incluso sillas de ruedas… A su vez podemos ver que el respeto de los usuarios de estas vías a la señalética establecida y en concreto por los pasos de cebra, es inexistente. En este sentido tenemos noticia y constancia de atropellos de peatones incluso en los pasos de cebra.

Laburbilduz, bidegorrien egungo egoerak eta herritarrek bidegorrien erabilera areagotzeak araudi espezifiko eta berariazko bat eskatzen digute, bidegorrien erabilera eta funtzionamendu egokia ezarriko duena argi eta garbi, denok ulertzeko moduan, halako moldez non zalantza guztiak argitu eta herritarrek jakin dezaten zer egin horrelako bideetan.

En resumen, la situación actual de los bidegorris y su uso por la ciudadanía nos está exigiendo una regulación específica que establezca, y ponga negro sobre blanco, el correcto uso y funcionamiento de los bidegorris, de tal manera que se despejen todas las dudas y sepa la ciudadanía a qué atenerse en este tipo de vías.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak honakoa aurkezten du

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular, presenta la siguiente

ERABAKI-PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Bidegorriak erabiltzeko araudia idaztea.

1. Que se redacte una normativa para el uso de los Bidegorris.

2. Bide-hezkuntzako ikastaroei berrekitea

2. Que se reanuden los cursos de Educación Vial

3. Mozio honen berri udal-komunikabideetan ematea.

3. Que se informe de esta moción en los medios de comunicación

Paula Amievak lehenengo puntua ordezteko ennienda transakzionala aurkeztu du, eta honako hau irakurri du:

*"1.- Hiri barruko bide publikoetako trafikoa, erabilerak eta segurtasuna antolatzeko indarrean dagoen ordenantza eguneratu eta aldatzea, bidegorrien erabilera arautzeko eranskin espezifiko bat erantsita."*

Joseba Arregik zuzenketa transakzionala aurkeztu du: lehenengo puntua aldatzea eta bigarrena ezabatzea. Irakurri egin du:

*"Lehenengoa: Mugikortasunari buruzko ordenantza berria prestatzeko izapideak hastea.*

*Bigarrena: Mozio honen berri ematea hedabideetan."*

Javier Elorzak Elkarrekin Podemosen zuzenketa transakzionala onartu du, baina EAJrena ez, bide-segurtasunari buruzko ikastaroen aipamena ezabatu da eta. Adierazi du mozioan adierazten dena berresten duela; gainera, errealitateak erakusten du bidegorrietan bizikletan ez ezik beste elementu batzuk ere erabiltzen dira, eta ordenantzan horiek ere arautu behar dira. Aipatu du ordenantza 2001. urtekoa dela eta ordutik hona bidegorriak erabiltzeko moduak asko aldatu direla; izan ere, gaur egun debeku bakarra da bidegorrietan ez dela ibili ez ibilgailurik ez oinezkorik. Esan du gaur egun erabiltzaileek ez dituztela errespetatzen zebra-bideak eta zenbait oinezko harrapatu dituztela; hori dela eta, ezinbestekoa da bidegorrien erabilera arautzea, eta herritarrei trebakuntza eskaini behar zaie bide-segurtasuneko ikastaroen bitartez, jokabide okerrei zehapenak

municipales.

Paula Amieva presenta una enmienda transaccional de sustitución del punto uno, a la que da lectura:

*"1.- Que se actualice y modifique la ordenanza de ordenación del tráfico, usos y seguridad en las vías públicas de carácter urbano vigente, incluyendo un anexo específico para regular el uso de los bidegorris."*

Joseba Arregui presenta otra enmienda transaccional que afecta al punto primero y suprimir el segundo, a la que da lectura:

*"Primero: Que se inicien los trámites para la elaboración de una nueva ordenanza de Movilidad.*

*Segundo: Que se informe de esta moción en los medios de comunicación."*

Javier Elorza acepta la transaccional planteada por Elkarrekin Podemos pero no la del PNV ya que en esta última se suprime la referencia a los cursos de seguridad vial. Manifiesta que se reafirma en lo recogido en la moción y en la realidad de la utilización de los bidegorris por los diferentes elementos además de bicicletas y que hay que regular en la ordenanza las nuevas situaciones, recalcando que la ordenanza es del año 2001 y desde entonces los usos y formas de utilización de los bidegorris han cambiado de manera importante ya que actualmente la única regulación que existe es que no pueden ser utilizados por vehículos y peatones. Insiste en que en la utilización actualmente no se respetan los pasos cebra y se han llegado a producir atropellos por lo que es necesario regular el uso y dar formación a la ciudadanía a través de los cursos se seguridad vial antes de

ezarri baino lehen.

Paula Amievak eskerrak eman dizkio PPri bere ekarpena onartzeagatik. Bizikleten eta bidegorrien erabilera maiz aztertzen da osoko bilkuretan. Uste du erabiltzaileek errespetu handiagoa diotela arautegiari mozioan islatzen dena baino; gainera, beraren ustez ez dira gero harrapatze asko. Beraren iritziz trafikoari buruzko ordenantza, 2001ekoa, eguneratu behar da, erabilerak aldatu dira eta. Ondo deritzo berriz ere bide-hezkuntzako ikastaroak egiteari, edukiak egungo mugikortasun-azturetara egokituta.

Gonzalo Ayok adierazi du tamala hartzen duela adostasuna lortzerik egon ez delako, baina uste du mugikortasun jasangarria gai garrantzitsua dela eta zuzenketa transakzionalaren xedea dela gaiari mugikortasun jasangarriari buruzko ordenantza baten bidez heltzea. Uste du horixe dela bide egokia. Irizpide horiekin bat datozen ordenantzak aipatu ditu, Madrilen aurreko legealdian egin zena, esaterako, eta ordenantza horien eta beste udal batzuen jarduketen berri eman du. Gogora ekarri du gobernu-taldeak erabaki duela herri barruan gehieneko abiadura mugatzea eta 30 Km orduko izatea. Bide-segurtasunari buruzko ikastaroak eskola-curriculumean sartzen dira. Azkenik, esan du kontrako botoa emango dutela, baina argi utzita Getxok mugikortasun jasangarriari buruzko ordenantza behar duela eta horretan ari direla lanean.

Nerea Guijarrubiak esan du EH Bilduk urteak eman dituela lanean autoa ardatz ez daukan mugikortasunerako neurriak prestatzen eta aurkezten. Mugikortasun jasangarrirako urratsak emango badira, goitik behera aldatu behar da egungo arautegia. Egungo

sancionar sus comportamientos.

Paula Amieva agradece al PP que haya aceptado su aportación. El tema del uso de la bicicleta y bidegorris es un tema de tratamiento frecuente en el pleno. Cree que las usuarias y usuarios muestran más respeto a la normativa que lo que se refleja en la moción y que la incidencia de los atropellos no le parece importante. Estima necesario actualizar la ordenanza de tráfico de 2001 porque los usos han cambiado y le parece bien que se retomen los cursos de educación vial con un contenido adaptado a los actuales hábitos en movilidad.

Gonzalo Ayo manifiesta que lamenta no haber podido llegar al consenso pero cree que la movilidad sostenible es un tema importante y que la enmienda transaccional lo que buscaba era abordar el tema con una ordenanza de movilidad sostenible, que en su opinión es la línea que se debe seguir. Da ejemplos de ordenanzas que responden a esos criterios como la se hizo en Madrid en la legislatura anterior dando detalles de los objetivos de dichas ordenanzas y de actuaciones de otros ayuntamientos. Recuerda que en ese sentido el equipo de gobierno ha acordado reducir el límite de velocidad en la ciudad a 30Km/hora. Los cursos de seguridad vial forman parte del currículo escolar. Finaliza indicando que votarán en contra pero dejando claro que Getxo necesita una ordenanza sobre movilidad sostenible y en ello están trabajando.

Nerea Guijarrubia indica que EH Bildu lleva años trabajando y presentando medidas de movilidad que no se centren en el coche. Para avanzar en la movilidad sostenible hay que modificar de forma sustancial la normativa actual. La actual crisis sanitaria ha potenciado

osasun-krisiak agerian jarri ditu bizikletaren onurak; EH Bildu horren ildotik ari da lanean bere ardurapeko eremuetan. Bizikletaren eta oinezkoen aldean lehentasuna autoari ematen dion politika errorea izan da. Uste du arautegia egungo egoerara moldatu behar dela eta lan egin behar dela herritarrek mugikortasun jasangarriaren aldeko jarrera eta prestakuntza eduki ditzaten. Uste du pedagogia-modurik hoberena litzatekeela bidegorri-sare oso eta jarraikoa egitea, eta oinezkoentzako espazioak lortzea. EH Bilduk argi dauka nolakoak izan behar diren lehentasunak: oinezkoek, bizikletak, garraio publikoa eta, azkenik, auto partikularra. Mozioak ez du argitzen nolakoa den PPk aldezten duen mugikortasun-eredua; horregatik, abstenitu egingo dira.

y evidenciado las ventajas de la bicicleta y en ese sentido está actuando EH Bildu en sus ámbitos de responsabilidad. La política basada en primar el coche sobre las bicicletas y los peatones ha sido un error. Cree necesario adecuar la normativa a la situación actual y hay que trabajar en la concienciación y formación ciudadana respecto a la movilidad sostenible. Opina que la mejor pedagogía sería completar una red de bidegorris continua y completa y dar también espacios a los peatones. EH Bildu tiene clara esa apuesta de primar los peatones, las bicicletas, el transporte público y en último lugar el vehículo particular. La moción no clarifica qué modelo de movilidad defiende el grupo popular, por lo que se abstendrán.

Joseba Arreguik gogorarazi du joan den apirilean gobernu-taldeak solasaldiak izan zituela alderdi politiko guztiekin mugikortasunaz eta Covid-19az. Solasaldietan zenbait neurri plazaratu ziren, eta eztabaidatu egin behar dira. Harrituta dago ikusirik osoko bilkuran zuzenean agertzen direla lehen bileran egin ziren ekarpen batzuk, elkarrizketek aurrera egiteko itxaron gabe. Aurkeztu den zuzenketa bat dator mugikortasun jasangarrirako planaren helburuekin. Horren arabera, ezarritako irizpìdeak betetzen dituen ordenantza onartu behar da. Adierazi du gai honi udal talde guztiekin batera ekingo diotela eztabaiden bidez akordioak lortzeko.

Joseba Arregui recuerda que el pasado abril se hizo una ronda por parte del equipo de gobierno con todos los grupos políticos para tratar de movilidad y Covid, planteándose medidas sobre las que hay que debatir y le sorprende que en el pleno se planteen de forma directa aportaciones que se han indicado en le primera reunión sin esperar a avanzar en el diálogo. La enmienda presentada va en sintonía con los objetivos del plan de movilidad sostenible que exige una ordenanza que responda a dichos criterios y manifiesta que seguirán insistiendo con todos los grupos municipales en el debate y acuerdos en esta materia.

Javier Elorzak esan du mozioaren ondorioz talde guztiek uste dutela 2001eko ordenantza eguneratu behar dela. Gainera, uste du hasteko urrats txikiak egin litezkeela, bidegorriak arautzea, esate baterako. Zerbait egin behar dela uste dute, eta horregatik aurkeztu dute mozioa. Berriz ere esan

Javier Elorza manifiesta que la moción ha motivado que todos los grupos vean necesario actualizar una ordenanza de 2001 y estima que se puede empezar dando pequeños pasos como es regular los bidegorris. Creen que hay que actuar y por eso han planteado la moción. Insiste en que la educación vial

du bide-hezkuntza ezinbestekoa dela herritarrek kontzientzia hartzeko, zehapenak ezartzen hasi beharrean.

es necesaria para concienciar a la ciudadanía antes de empezar con la imposición de sanciones.

Paula Amievak adierazi du inork ez duela esan ordenantza berrian ezin denik landu mugikortasun jasangarria. Gogora ekarri du duela urte asko aurkeztu zela HMJP. Ez du ulertzen gobernu-taldearen jarrera moziokoaren antzeko gaien inguruko planteamenduez ari direnean.

Paula Amieva manifiesta que nadie ha indicado que en esa nueva ordenanza no se puedan incluir contenidos de movilidad sostenible. Recuerda que desde que se presentó el PMUS han pasado años. No entiende la opinión del equipo de gobierno cuando tratan sus planteamientos de cuestiones similares a la moción.

Nerea Guijarrubiak esan du mozio honen inguruan dauzkaten zalantzak ez direla argitu oraindik; hain zuzen ere, mozioaren ardatza bizikleta da, eta ez dira aztertzen gainerako erabiltzaileak, eta, gainera, ez dira zehazten alderdi popularrak aldezten duen mugikortasun-ereduaren lehentasunak. Beraz, abstenitu egingo dira; dena den, horrek ez du esan nahi ordenantza eguneratzearen kontra daudenik.

Nerea Guijarrubia manifiesta que las dudas que les surgen con la moción siguen sin clarificarse ya que la moción pone el foco en la bicicleta sin ampliar el análisis al resto de usuarios de la movilidad y tampoco se clarifican las prioridades del modelo de movilidad que defiende el grupo popular por lo que se abstendrán, sin que por ello suponga oponerse a actualizar la ordenanza.

Mozioa bozkatu dute eta ezetsi egin dute: 6 boto alde (PP eta Elkarrekin Podemos), 14 boto kontra (EAJ eta PSE-EE) eta 4 abstentzio (EH Bildu).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, PP, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE; 4 abstenciones, EH Bildu.

**75.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TAO EZARTZEA EREAGAN.**

**75.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA IMPLANTACIÓN DE LA OTA EN EREAGA.**

Javier Elorzak ondorengo mozioa irakurri du:

Javier Elorza da lectura a la siguiente moción:

Udako denboraldia iristearekin batera hasten da gure hondartzetako trafikoa. Oraingo honetan, oso litekeena da, normaltasun berriagatik eta probintzien arteko mugimenduen mugengatik, gure hondartzetako jende kopurua handitzea eta, beraz, baita inguru horietara hurbiltzen diren autoen

Con la llegada de la temporada estival comienza la afluencia de tráfico a nuestras playas. En esta ocasión es más que probable que por la nueva normalidad y los límites de movimientos entre provincias la afluencia a nuestras playas se incremente y por lo tanto también el

kopurua ere.

Azken batean, gure hondartzetarako sarbideak kolapsatuta egongo dira, duela urte batzuetatik hona ohikoa den bezala eta ziurrenik aurten arazoa areagotu egingo da. Ildo horretatik, hondartzetan eta, zehatzago esanda, Ereaga inguruan ditugun trafiko-arazoak larriagoak izango dira.

Jakina denez, gure inguruko kostaldeko ia udalerri guztiek dituzte aparkatzeko sistema arautuak, egoiliarrentzat doakoak izaten direnak, eta horrek aukera ematen du errotazio eraginkorra egiteko eta, beste alde batetik, automobilaren erabileraren disuasio-efektua eragiteko. Egiaztatuta dago ibilgailuak aparkatzeko ordaindu behar denean trafikoa nabarmen murrizten dela eta horren ondorioz kolapsoak saihesten direla.

Getxoko hondartzetan (Ereaga eta Azkorri) ez dago araututako aparkaleku-sistemarik eta, hori dela eta, gure bizilagunekin konparaziozko bidegabekeria da, gure inguruko beste udalerri batzuetakoekin alderatuta.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak honakoa aurkezten dio Osoko Bilkurari.

ERABAKI-PROPOSAMENA:

1. Ereaga eta Azkorri hondartzetan aparkaleku sistema arautua (TAO) ezartzea.

2. Gure udalerrian zirkulazio-zerga ordaintzen duten herritarrek ez dute aparkatzeko zerbitzu arautu hori ordaindu beharrik izango.

3. Mozio honen berri ematea udal-komunikabideetan.

número de automóviles en estas zonas.

En definitiva, los accesos a nuestras playas van a estar colapsados como ya es habitual desde hace años y seguramente este año en mayor medida. En este sentido los problemas de tráfico que tenemos en las zonas de playas y en concreto en el entorno de Ereaga se van a incrementar.

Como es bien sabido la práctica totalidad de los municipios costeros de nuestro entorno tienen establecidos sistemas de estacionamiento regulado, gratuito para sus residentes, lo que permite una rotación efectiva y por otro lado un efecto disuasorio del uso del automóvil. Podemos constatar que, cuando para estacionar los vehículos hay que pagar, disminuye sensiblemente el tráfico evitándose colapsos.

La falta de un sistema de aparcamiento regulado en las zonas de playas de Getxo (Ereaga y Azkorri) supone un agravio comparativo para nuestros vecinos frente los de otros municipios de nuestro entorno.

Por todo lo anterior el Grupo Municipal Popular presenta al pleno del ayuntamiento la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Que se implante un sistema de aparcamiento regulado (OTA) en las zonas de las playas de Ereaga y Azkorri.

2. Los vecinos que abonen el impuesto de circulación en nuestro municipio estarán exentos del pago de este servicio de estacionamiento regulado.

3. Que se informe de la presente moción en los medio de comunicación

municipales.

Yanire Ociok ordezko zuzenketa transakzional bat proposatu du, eta irakurri egin du:

*"1. Araututako Aparkaleku Zerbitzuaren kontratu berria idazteko lanez baliatzea ondoren kontratuaren lizitazioa egiteko eta Ereagako hondartzako aparkalekua (Ereaga - Portu Zaharra) sartzea, arautzeko.*

*2. Mozio honen berri ematea hedabideetan."*

Yanire Ocio plantea una enmienda transaccional de sustitución a la que da lectura:

*"1. Aprovechar la redacción del nuevo contrato del Servicio de Estacionamiento Regulado, para su posterior licitación e incluir el aparcamiento en la playa de Ereaga, zona Ereaga - Puerto Viejo para su regulación.*

*2. Que se informe de esta moción en los medios de comunicación."*

Javier Elorzak esan du proposatzen den zuzenketak kanpoan uzten duela Azkorriko zona; gainera, gobernu-taldeak planteatzen duen irizpidea, Ereagan TAO ezartzea, eskertzeko moduko aldaketa da. Hala ere, ez dute onartzen zuzenketa transakzionala, eta adi egongo dira gobernu-taldearen borondate-aldaketa honen aurrean. Adierazi du mozio hau, edo antzekoren bat, bost alditan baino gehiagotan aurkeztu dutela, eta esan du tema horren atzean inguruko herritarren eskaera dela, nahi baitute Getxon egin dadila hondartza duten inguruko edo hurbileko herri guztietan egin dena. Ereaga aldean geroz eta aparkaleku gutxiago daude, eta garraio publikoa ez da bertara heltzen; beraz, gobernu-taldeak herritarrei diotse doazela oinez edo bizikletaz, eta hori ezinezkoa da batzuentzat. Galdetu du ea getxotarrek zergatik ordaindu behar duten TAO beste hondartza batzuetara doazenean eta Getxoko hondartzetara datozen beste udalerri batzuetako herritarrek ez duten ezer ordaindu behar aparkatzeagatik. Araututako aparkalekuen onurak goraipatu ditu Ereagako trafiko-arazoa konpontzeko.. Uste du gobernu-taldeak adineko pertsonak zigortzen dituela, hondartzara joateko modu bakarra ibilgailua dute eta.

Javier Elorza manifiesta que la enmienda propuesta deja fuera la zona de Azkorri y ese criterio que plantea el equipo de gobierno de implantar la OTA en la zona de Ereaga es un cambio que agradece pero no aceptan la transaccional y estarán atentos a este cambio de voluntad del equipo de gobierno. Manifiesta que esta moción o parecida se han presentado en más de cinco ocasiones en el ayuntamiento y la siguen presentado porque responde a una demanda vecinal que reclama que se actúe en Getxo como se está actuando en todos los municipios colindantes o próximos que tienen playa. En la zona de Ereaga van desapareciendo aparcamientos y no hay un acceso de transporte público por lo que el equipo de gobierno plantea a la ciudadanía que vaya andando o en bicicleta, lo cual no es posible en todos los casos. Pregunta por qué los de Getxo cuando van a otras playas tienen que pagar la OTA y los vecinos de otros municipios cuando vienen a las playas de Getxo no pagan nada por aparcar. Resalta las ventajas del aparcamiento regulado para resolver el problema de acceso a Ereaga. Cree que el equipo de gobierno castiga a las personas mayores que no pueden acceder más que utilizando un vehículo.

Paula Amievak esan du mozioak kontraesanak sortzen dizkiela. TAOren helburua aparkatuta dauden ibilgailuak txandakatzea da, baina mozio honen arabera tratamendua hobea edukiko lukete getxotarrek, hau da, hondartzatik hurbilen daudenek eta oinez joan ahal dutenek. Beraren ustez, aisialdiko zonetan, hondartzetan, kasurako, auto gutxiago egotea lortu nahi bada, berdin da nongoak diren autoen jabeak. Uste du mozioaren planteamenduan aipatzen ez diren beste mugikortasun-eredu batzuen alde egin behar dela; beraz, abstenitu egingo dira.

Paula Amieva manifiesta que la moción les genera cierta contradicción. La finalidad de la OTA es generar una mayor rotación pero con la moción se da un mejor trato a los vecinos de Getxo que son los que más cerca viven y pueden ir andando. Estima que si se quiere disminuir el número de coches en las zonas de ocio como las playas es indiferente de dónde sea el propietario del vehículo. Cree que hay que apostar por otros modelos de movilidad que no vienen recogidos en el planteamiento de la moción, por lo que se abstendrán.

Carmen Díazek esan du denak daudela kezkatuta Ereaga inguruko mugikortasuna dela eta; uste du TAO ezartzea ez dela neurri egokia. TAOren helburua ez da dirua biltzea, baizik eta jendeak autoa ez erabiltzea; beraz, mozioak ez dauka zentzurik. Uste du oinezkoentzako bideak hobetu behar direla eta garraio publikoa ezarri behar dela.

Carmen Díaz cree que es compartida la preocupación por la movilidad en el entorno de Ereaga y cree que establecer una OTA no es una buena medida. La OTA busca un efecto disuasorio y no recaudatorio, por lo que no tiene sentido la moción. Cree que hay que reforzar el acceso peatonal y habilitar transportes públicos.

Nerea Guijarrubiak esan du EH Bilduk zalantzak dauzkala talde popularraren mugikortasun-ereduaz. EH Bilduren ustez autoa gutxiago erabiltzea lortu behar da; beraz, ez dute egingo mozioaren alde. Uste dute herritarrek bizikleta gehiago erabiliko badute ezinbestekoa dela bidegorri-sare oso eta jarraikoa sortzea. Ez datoz bat mozioan azaltzen diren mugikortasun-irizpideekin; beraz, ez dute emango aldeko botoa. EH Bilduk aldezten dituen mugikortasun-irizpideak azaldu ditu: ibilgailu pribatua azken aukera da. Bere iritziz, mozioak kutsu elektoralista dauka.

Nerea Guijarrubia indica que EH Bildu mantiene dudas acerca del modelo de movilidad del grupo popular. EH Bildu cree que hay que disuadir del uso del coche y por tanto no apoyarán la moción. Creen que para que se incentive el uso de la bicicleta es necesario crear una red completa y continua de bidegorris. Al no compartir los criterios de movilidad que se derivan de la moción, no la van a apoyar. Explica los criterios de movilidad que defiende EH Bildu donde el vehículo privado es la última opción. Cree que la moción tiene una connotación electoral.

Yanire Ociok adierazi du gobernu-taldearen asmoa dela TAOren kontratu berrian araututako zona berriak ezartzea Ereagan udarako. Mozioaren

Yanire Ocio manifiesta que el equipo de gobierno tiene intención en el nuevo contrato que se va licitar de la OTA de establecer unas nuevas zonas de

xedea da Azkorrin ere aparkalekuak araututa egotea; alde hori oso bestelakoa da, eta ez da egokia TAO ere bertara zabaltzea. Azkorrira garraio publikoan joan daiteke, eta horren joan-etorriak hobetzeko biribilgua egin nahi da. Uste dute hori ez datorrela bat mozioaren bigarren puntuarekin. Ereagan 650 aparkaleku-plaza daude, eta Getxon 47.000 ibilgailutik gora; mozioaren arabera ibilgailu horien guztien jabeek doan aparkatu ahal izango lukete. Mozioak hondartzara joateko autoa erabiltzea bultzatuko luke, eta ingurua autoz gainezka egongo litzateke. Hori ez dator bat txandak sustatzen dituen TAOrekin. Gobernu-taldea mugikortasunaren arloan aplikatzen ari den irizpideak azaldu ditu.

regulación para la temporada estival en la zona de Ereaga. La moción plantea extender la regulación también a la zona de Azkorri que en su opinión tiene unas características muy diferentes y no procede la ampliación. Azkorri es accesible en transporte público y para mejorarlo se pretende crear una rotonda para facilitar la circulación del transporte público. Creen que es contradictorio el punto segundo de la moción. En la zona de Ereaga hay 650 plazas de aparcamiento y el parque automovilístico de Getxo asciende a más de 47.000 vehículos, que según la moción podrían aparcar gratis. La moción incentivaría el acercamiento en coches, lo que colapsaría la zona, y es contradictorio con una OTA que potencia la rotación. Explica los criterios de movilidad del equipo de gobierno que se están aplicando.

Javier Elorzak zorionak eman dizkio gobernu-taldeari datorren urtean Ereagan TAO aplikatzeagatik; talde popularra 2008. urtean hasi zen aurkezten eskaera hori. Gainera, adierazi du bere taldea udan garraio publikoa bultzatzearen alde dagoela; izan ere, PPk hori ere eskatu izan du, baina urte osorako. Adibide batzuk eman ditu erakusteko adinagatik eta urruntasunagatik pertsona batzuek oso zail izan dezaketela Ereagara oinez edo bizikletan joatea. Berriz ere esan du Getxon zergak altuak direla, eta eskatu du herritarrek doan eduki dezatela aparkatzea, uste baitute Ereagan autoa aparkatzen duten pertsonen % 80tik gora ez direla getxotarrak.

Javier Elorza felicita al equipo de gobierno porque el próximo año se va a implantar la OTA en Ereaga petición que desde el 2008 ha realizado el grupo popular, así como también se manifiestan por la potenciación del transporte público en verano que es también una petición del PP pero para todo el año. Pone ejemplos de situaciones que hacen muy difícil por edad y distancia poder ir andando o en bicicleta a Ereaga. Insiste en que se pagan muchos impuestos en Getxo y pide que los vecinos puedan aparcar gratis ya que en su opinión más del 80% de los vehículos que en este momento aparcan en Ereaga no son propiedad de vecinos del municipio.

Paula Amievak onartu du kasu desberdin asko daudela, eta esan du bat datozela udalerri barruan garraio publikoa bultzatzearekin urruntasunaren eta adinaren zailtasunak gainditzeko; garraio publikoa urte osoan ibili behar litzateke, eta auzo guztietan, gainera.

Paula Amieva reconoce que hay muchas casuísticas diferentes y manifiesta su conformidad con potenciar el transporte público dentro del municipio para superar los problemas de distancias y edad, transporte público que debería de funcionar durante todo el año y que

accediera a los diferentes barrios.

Nerea Guijarrubiak uste du hondartzara ez oinez ez bizikletan ezin joan duten pertsonek badauzkatela alternatibak autoa ez erabiltzeko. EH Bildu urte osoan udalerri barruan garraio publikoa ibiltzearen alde dago. Ez datoz bat mozioaren ereduarekin, ibilgailua erabiltzearekin, alegia; nolanahi ere, kasubatzuetan pertsona batzuek autoan baino ezin dute joan hondartzara, eta horiei jaramon egin behar zaie.

Nerea Guijarrubia cree que hay alternativas diferentes al automóvil para que las personas que no pueden ir andando o en bicicleta accedan a la playa. EH Bildu defiende un transporte público intramunicipal durante todo el año. No comparte el modelo que traslada la moción de uso del vehículo sin perjuicio de que puedan atenderse casos puntuales de imposibilidad de acercarse a las playas si no es en vehículo.

Mozioa bozkatu dute eta ezetsi egin dute: 5 boto alde (PP), 15 boto kontra (EAJ, EH Bildu) eta lau abstentzio (PSE-EE eta Elkarrekin Podemos).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 5 votos a favor, PP; 15 votos en contra, PNV, EH Bildu; 4 abstenciones, PSE-EE, Elkarrekin Podemos.

11: 35ean, alkateak osoko bilkura eten du, bilkura-aretoa aireztatu ahal izateko.

Siendo las 11:35 horas la Alcaldesa suspende el pleno para que se pueda airear el salón de sesiones.

11: 55ean ekin zaio berriro bilkurari.

Siendo las 11:55 horas se reanuda la sesión.

**76.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EDUKIONTZIETAN PEDALA INSTALATZEA.**

**76.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA INSTALACIÓN DE PEDAL EN LOS CONTENEDORES.**

Gonzalo Zorrilla de Lequerica ondorengo mozioa irakurri du:

Gonzalo Zorrilla-Lequerica da lectura a la siguiente moción:

2016ko amaieran Getxoko kaleetako edukiontzi guztiak aldatu ziren.

A finales del 2016 se sustituyeron todos los contenedores de las calles de Getxo.

Oraindik inork ezagutzen ez dituen arrazoiengatik aurreko legealdiko Gobernu Taldeak edukiontziak pedalik gabe instalatzea erabaki zuen. Gobernu Taldeak funtzionamenduari dagokionez oso edukiontzi erabilerraza zela esan zuen.

Por cuestiones que todavía nadie sabe, el equipo de gobierno de la pasada legislatura decidió instalar los contenedores sin pedal. El equipo de gobierno lo describió como un contenedor muy amable en cuanto al funcionamiento.

Popular Udal Taldeak uste dugu errealitatea oso bestelakoa gertatu dela:

Desde el Grupo Municipal Popular creemos que la realidad ha sido muy

frogatuta geratu da edukiontzi horiek deserosotasun handiagoa sortu dutela, eskuarekin ireki behar direlako. Deserosotasun hori nabarmen areagotzen da euria egiten duenean, eta horiekiko irisgarritasuna zailtzen du.

diferente: Ha quedado más que demostrado que estos contenedores han generado más incomodidad al tener que abrirlos con la mano, incomodidad que se incrementa de una manera ostensible cuando llueve, y dificulta la accesibilidad.

Pertsona askorentzat deserosotasun hori antihigienikotzat ere jotzen da, eta hilabete hauetan arazoa larritu baino ez da egin da Covid-19aren egoeragatik, edukiontzien estalkiak kutsatze-foku izan daitezkeelako.

Esta incomodidad, que para muchas personas es considerada hasta antihigiénica, se ha visto agravada estos meses por la situación del Covid-19 haciendo que las tapas de los contendores sean un posible foco de contagio.

Duela gutxi ahokak jarri dira paperaren/kartoiaren (edukiontzi urdinak) eta ontzien (edukiontzi horiak) edukiontzien estalkietan. Irtenbide hau adabaki bat baino ez dela uste dugu.

Recientemente se han puesto bocas en las tapas de los contenedores de papel/cartón (contenedores azules) y envases (contenedores amarillos). Entendemos que esta solución es un parche.

Aurreko guztiagatik, Popular Udal Taldeak uste du edukiontzietan pedala instalatzea beharrezkoa eta ezinbestekoa dela oraindik ere, gure bizilagunentzat irisgarritasun, higienizazio eta erosotasun handiagoa lortzeko.

Por todo lo anterior, desde el Grupo Municipal Popular creemos que la instalación del pedal en los contenedores sigue siendo necesaria e imprescindible para una mayor accesibilidad, higienización y comodidad para nuestros vecinos.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Talde honako hau proposatzen du

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

ERABAKI-PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

Lehenengoa: Getxoko Udalak pedal bat jar dezala edukiontzietan.

Primero: Que el Ayuntamiento de Getxo instale pedal en los contenedores.

Bigarrena: Mozio honen berri udal-komunikabideetan ematea.

Segundo: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du ez dakiela zergatik gobernu-taldeak ez duen jarri pedaldun edukiontzia, nahiz eta zerbitzuaren adjudikazioa daukan enpresak aukera hori eskaini. Halaber, esan du gobernu-taldeak jarri duena

Gonzalo Zorrilla-Lequerica indica que no conoce la razón por la que el equipo de gobierno no pusiera contenedor con pedal pese a que en la oferta de la empresa adjudicataria del servicio se contemplaba dicha posibilidad.

bezalako edukiontzia dagoela, baina pedalduna. Adierazi du hondakinak biltzeko kontratua ez dela bete hainbat aldiz; gainera, egungo edukiontziak irekitzeko esku bat erabili behar da, eta hori egiten den artean beste eskua baino ezin da baliatu zaborrak edukiontzian sartzeko, eta mugitzeko arazoak dauzkaten pertsonek arazo asko edukitzen dituzte. Oraingo pandemian, gainera, jakina da edukiontzien estalkiak gaixotasunaren hedapen-tokiak direla. Herritarren kexa eta protesta asko agertu diren sare sozialetan, eta 2018ko eta 2019ko aurrekontu parte-hartzaileetan herritarren eskaerarik babestuena edukiontzietan pedala ipintzea zen. Proposamen hau talde popularrak 2020ko aurrekontuari aurkeztutako zuzenketetan agertzen zen, baina ez ziren baietsi. Badu itxaropena gobernu-taldearen irizpidea aldatu dela eta proposamena onartuko dutela.

Manifiesta también que el mismo tipo de contenedor que ha colocado el equipo de gobierno existe con pedal. Indica que el contrato de recogida de residuos ha sido repetidas veces incumplido y que los actuales contenedores obligan a que se abran con la mano y esa mano queda inutilizada y tiene que valerse solamente de la otra mano para el depósito de las basuras, lo cual es muy problemático para las personas con movilidad reducida. En la actual pandemia se ha demostrado además que las tapas de los contenedores son un foco de infección. Existen muchas quejas vecinales y protestas en las redes sociales y en los presupuestos participativos de 2018 y 2019 la solicitud más demandada por la ciudadanía era la instalación del pedal. Esta propuesta se incluye en las enmiendas del grupo popular presentadas al presupuesto de 2020 y que no se estimaron. Espera que el equipo de gobierno haya modificado su criterio y acepte la propuesta.

Paula Amievak adierazi du Elkarrekin Podemosek moziaren aldeko botoa emango duela. Orain dauden edukiontziak ez dira erosoak; arinak dira, haizeak erraz mugitzen ditu, eta adinekoentzat ez dira batere erabilerrazak. Erabaki hori zuzendu nahian, gobernu-taldea ahoak irekitzen ari da edukiontzietan, baina ez du onartzen ezer txarto egin duenik. Ahoak irekitzeko erabakia pandemia hasi aurretik hartu zen; uste du gobernu-taldeak ez du onartuko oker jokatu duenik, eta honi ekiten segitzeko asmoa dute. Eskatu du hondakinen foroa biltzeko, aurreko legealditik hona ez da behin ere bildu.

Paula Amieva indica que desde Elkarrekin Podemos van a apoyar la moción. Los actuales contenedores no son cómodos, son ligeros, los mueve fácilmente el viento y son poco accesibles para las personas mayores. El equipo de gobierno está intentando rectificar esa decisión abriendo agujeros en las bocas de los contenedores pero sin reconocer el error cometido. Esta decisión de abrir las bocas fue anterior a la pandemia y cree que el equipo de gobierno no va a aceptar reconocer un error por lo que seguirán insistiendo. Pide que se reúna el foro de residuos que desde la legislatura anterior no se ha reunido.

Carmen Díazek esan du edukiontzi berrien inguruko erabakia foroan hartu zela, eta gaikako bilketa gehitzea lortu dela. 2018an hondakinen foroan

Carmen Díaz manifiesta que la decisión de los nuevos contenedores surgió del foro de residuos y que se ha conseguido incrementar la recogida selectiva. El

edukiontzietan ahoa irekitzeko aukera aurkeztu zen, eta apurka-apurka gauzatu da. Uste dute arazoa badagoela eta orokorrean aztertu behar dela, herritarren iritziak entzunda; beraz, abstenitu egingo dira.

año 2018 el foro de residuos planteó abrir bocas en los contenedores y así se ha ido realizando. Creen que el problema existe y que hay que estudiarlo en conjunto y atendiendo a la ciudadanía, por lo que se abstendrán.

Ibon Rodríguezek esan du hondakinen foroan ez dela ezer erabakitzen; gauzak proposatzen dira, gehienez ere. Edukiontzien gaia ikurtzat hartu dute talde askok, baina okerreko oroitzapen bat dute abiaburu. Izan ere, edukiontziek pedala zutenean, ez ziren erosoak, sarritan matxuratzen ziren, eta herritar askok laguntza behar izaten zuten zaborra botatzeko. Eztabaida hondakinen arloko politikei buruz izan behar litzateke. Getxon, ematen du talde popularrak aukera batzuk babesten dituela, baina, beste alde batetik, uko egin dio hondakinak gaika biltzeko formula oso eraginkor batzuk erabiltzeari, nahiz eta agintzen duen tokietan aplikatu. Gogorarazi du 2018. urtean gobernu-taldearekin akordioa egin zutela hondakinei buruz: haren arabera, konposta egiteko instalazioa eraikiko zen eta azterlan batzuk egingo ziren, besteak beste, baina ez da ezer egin. Gobernu-taldeak aitzakia modura esaten du Foru Aldundiak oraindik ez dituela hartu beharrezko erabaki batzuk, baina gogoan eduki behar da Foru Aldundiaren gobernuko alderdiak Getxoko Udalekok berak direla. Berriz ere esan du pedala ikur bihurtu dela eta talde bakoitzak bere balioa ematen diola, baina garrantzitsuenak HHSak kudeatzeko politika eta kontsumo-eredua direla.

Ibon Rodríguez manifiesta que el foro de residuos no decide sino que, en todo caso, propone. El tema de los contenedores se ha convertido en un icono para muchos grupos pero indica que parten de un recuerdo erróneo. Cuando había pedales en los contenedores éstos eran incomodos, se estropeaban mucho y muchas veces los ciudadanos requerían de ayuda para depositar la basura. El debate tendría que realizarse sobre las políticas de residuos. En Getxo el grupo popular parece defensor de unas opciones pero por otro lado se ha negado a implantar en Getxo fórmulas, que donde manda aplica, que son muy efectivas para avanzar en la recogida selectiva. Recuerda cómo llegaron a un acuerdo con el equipo de gobierno sobre los residuos, acuerdo que recogía la creación de una planta de compostaje, la realización de determinados estudios, etc., que no se han cumplido pese a que los acuerdos son del año 2018. El equipo de gobierno se escuda en que la Diputación Foral tiene que adoptar una serie de decisiones que aún no han adoptado pero recuerda que la Diputación Foral está gobernada por los mismos grupos que gobiernan el Ayuntamiento de Getxo. Insiste en que la cuestión del pedal es un icono al que cada grupo le da un valor pero que lo importante es la política de gestión de las RSU y el modelo de consumo.

Joseba Arreguik adierazi du zaborraren kontzeptua hilda dagoela eta gaur egun hondakinak sistemara itzuli behar direla. Moziora etorrita, edukiontziei pedala ipini nahi zaie, erosotasuna aintzat hartuta. Esan du ez dagoela

Joseba Arregui indica que el concepto de basura ha muerto ya y que los residuos tienen como finalidad volver al sistema. Respecto a la moción ésta fundamenta la implantación del pedal en razones de comodidad. Manifiesta

edukiontzi perfekturik, eta 2016an orain erabiltzen den modeloa hautatu zenean merkatua aztertu zela eta kontuan eduki zirela edukiontziei buruzko iritziak. Orain arte pedala errefusen edukiontziek baino ez dute eduki (ezabatu beharreko edukiontzia); gainerako sei edukiontzietan ez da inoiz pedalik egon. Esan du Europar Batasunak hondakinez onartutako zuzentaraua txertatzen ari dela Estatuan; horren arabera, edukiontziak erabiltzeagatik ordaindu behar da, eta helburua hondakinak gaika biltzea da. 2016ko erabakia proposamen teknikoak eta talde guztien iritziak oinarritzat hartuta hartu zen, eta denek onartu zuten; gero, handik urte bira, talde popularrak pedalaren gaia aurkeztu zuen (2018ko uztailean aztertu zen lehenengoz). Aldi hartan bertan pedala ipini beharrean edukiontzietan ahoa irekitzea onartu zen gehiengoz. Hondakinen gaikako bilketan egin diren aurrerapenen berri eman du, eta Getxoko Udalak arlo horretan egiten duen zerbitzuaz kanpoko entitate batzuek agertutako iritziak azaldu ditu. Uste du aurrerapen horiek udal talde guztien sostenguari esker lortu direla. Paula Amievari esan dio ez daukala zentzurik hondakinen foro goraipatzeak, gero bertan adostutakoa betetzen ez bada. EH Bilduri esan dio adostutakoa betetzeak luze jo duela, baina betetzen ari dela.

que no hay contenedor perfecto y que en el año 2016 se eligió el modelo que se ha implantado atendiendo a lo que había en el mercado y también a las opiniones que se manifestaban. El pedal solo ha existido anteriormente en los contenedores de fracción resto, que es el contenedor que hay que eliminar, ya que en los otros seis tipos de contenedores no ha existido nunca pedal. Manifiesta que en el Estado se está trasponiendo una directiva europea sobre residuos que se basa en el pago por la utilización y tiene como objetivo la recogida selectiva. La decisión del año 2016 con base en las propuestas técnicas y de todos los grupos fue asumida por todos y posteriormente a los dos años es cuando el grupo popular plantea el tema del pedal, ya que por primera vez se trató en julio de 2018. En esas fechas también se acordó por mayoría la colocación de bocas en los contenedores en lugar de colocar pedal. Da cuenta de los avances en recogida selectiva y de alguna valoración que en entidades externas realizan de este servicio del Ayuntamiento de Getxo y cree que ese avance se ha logrado por el apoyo de todos los grupos municipales. Indica a Paula Amieva que no tiene sentido apelar al foro de residuos para luego no cumplir su acuerdo y a EH Bildu le manifiesta que se está tardando en cumplir el acuerdo pero que se está cumpliendo.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du foroak kontsulta-organoak direla, ez erabakitzeko organoak. Eskerrak eman dizkio Elkarrekin Podemosi sostenguagatik, eta esan du harro dagoela gobernu-taldeak EH Bildurekin planteatzen zuen atez ateko bilketaren kontra eginagatik. EH Bildu gobernuan dagoela pedaldun edukiontziak ipini dituzten udalerri batzuk aipatu ditu. PSE-EEri esan dio beren hauteskunde-programan pedaldun edukiontziak

Gonzalo Zorrilla-Lequerica indica que los foros son órganos consultivos pero no decisivos. Agradece el apoyo de Elkarrekin Podemos y se siente orgulloso de haberse opuesto al puerta a puerta que planteaba el equipo de gobierno con EH Bildu. Da datos de municipios gobernados por EH Bildu que han implantado contenedores con pedal. Al PSE-EE le indica que en su programa electoral figuraba una promesa de contenedores con pedal. Al

jartzeko promesa agertzen zela. EAJri esan dio pozten direla gaikako bilketaren ehunekoak goraka joatearekin, baina horrek ez daukala zerikusirik edukiontzietan pedala ipintzearekin. Onartu du PPri denboratxoa kostatu zitzaiola erreakzionatzea, baina erreakzionatu egin du, behintzat. EAJri eskatu dio alda dezala pedalarekiko jarrera eta zuzendu dezala bere iritzia, ona izango bailitzateke herritar guztientzat.

PNV le manifiesta que se alegran que los porcentajes de recogida selectiva se incrementen, pero nada tienen que ver con la exigencia del pedal en los contenedores. Reconoce que el PP reaccionó al de un tiempo, pero al menos ha reaccionado y pide al PNV que se mueva de su posición y rectifique sobre el pedal, lo que sería bueno para toda la ciudadanía.

Paula Amievak esan du hondakinen foroan gobernu-taldeak hautatutako edukiontzia aurkeztu zela; foroan ez zen ezer erabaki, eta informazioa urria izan zen, gainera. Galdetu du ea zer egingo den foroan aurkeztutako proposamen guztiekin. Foroan emaitzak ebaluatzea ere adostu zen, gero neurriak hartzeko. Uste du desadostasunek ez dutela eragotzi behar proposamenak aurkeztea.

Paula Amieva manifiesta que en el foro de residuos se presentó el modelo de contenedor que el equipo de gobierno había decidido pero en el foro no se decidió nada y además la información fue escasa. Pregunta qué se va a hacer con todas las propuestas presentadas al foro. También se acordó evaluar los resultados para adoptar medidas. Cree que la existencia de discrepancias no debe impedir presentar propuestas.

Carmen Díazek eskerrak eman dizkio talde popularrari PSE-EEren hauteskunde-programa aztertzeagatik. Onartu du pedaldun edukiontzien alde egin dutela; abstenitu egingo dira, edukiontzi guztiei pedala jartzeak zenbateko gastua eragingo lukeen jakin behar da eta, batez ere gau egun dagoen krisia kontuan hartuta. Uste du garrantzitsuena hondakinen arloko politikari buruzko eztabaida dela.

Carmen Díaz agradece al grupo popular el estudio del programa electoral del PSE-EE. Reconoce que han defendido los contenedores con pedal y se abstienen porque es necesario conocer el coste de poner pedal a todos los contenedores y ese datos es aún más necesario en este tiempo de crisis. Cree que lo importante es un debate sobre la política de residuos.

Ibon Rodríguezek esan du EH Bildu kezkatuta dagoela ikusirik alderdi politiko bat harro egotea atez ateko sistema gelditzeagatik, nahiz eta beste udalerri batzuetan aplikatu eta, gainera, Europan hondakinak gaika biltzeko proposatzen den sistema izan. Ustu du kezkagarria dela gai honetaz eztabaidatzea eta ez hondakinen gaineko politikari buruz, eta ez edukitzea oraindik hondakin-bilketaren tasei eta hondakin-motei buruzko azterlanik; gainera, konposta egiteko

Ibon Rodríguez manifiesta que a EH Bildu le preocupa que un partido político se sienta orgulloso de parar el sistema puerta a puerta cuando ese mismo grupo lo aplica en otros ayuntamientos y además es el modelo de recogida selectiva que se propone en Europa. Cree preocupante que se debata sobre este tema y no sobre la política de residuos ni se tengan aún estudios sobre las tasas y la tipología de residuos, la planta de compostaje sigue sin crearse y tampoco se está trabajando

instalazioa egin gabe dago, eta herritarren kontzientziazioa ere ez da lantzen.

en la concienciación ciudadana.

Mozioa bozkatu da eta ezetsi egin da: 6 boto alde (PP eta Elkarrekin Podemos), 11 boto kontra (EAJ) eta 7 abstentzio (EH Bildu eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, PP, Elkarrekin Podemos; 11 votos en contra, PNV; 7 abstenciones, EH Bildu, PSE-EE.

**77.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: JUAN CARLOS BORBOIKOAREN BUSTOA GETXOKO UDALEKO OSOKO BILKUREN ARETOTIK KENTZEA.**

**77.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/RETIRAR EL BUSTO DE JUAN CARLOS DE BORBÓN DEL SALÓN DE PLENOS DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.**

Itxaso Masedak proposamena irakurri du. Uste du mozioa argia dela eta denok dakigula zer egin duen Juan Carlos Borboikoak; ez dute ulertzen zergatik egon behar den haren bustoa bilkura aretoan. Amaitzeko, esan du Getxoko herritarrek egoera hori arbuiatzen dutela.

Itxaso Maseda da lectura a la propuesta. Opina que la moción es clara y todo el mundo sabe lo que ha hecho Juan Carlos de Borbón y no entienden por qué tiene que figurar un busto suyo en el salón de plenos. Finaliza indicando que la ciudadanía de Getxo rechaza esta situación.

Paula Amievak esan du alde bozkatuko dutela, erabateko errepublikazaleak diren aldetik. Beraren iritziz garaiz kanpokoa da bilkura aretoan herritarrentzat batere eredugarria ez den pertsona baten bustoa edukitzea.

Paula Amieva manifiesta que votarán a favor con todo convencimiento republicano. Le parece obsoleto tener un busto en el salón de plenos de un personaje que no es ningún ejemplo público.

Carmen Díazek uste du justiziak aztertuko behar duela Juan Carlos I.aren jarduna. Bustoa kentzearen alde daude, gaur egun ez baita estatuburua. Gogorarazi du araubide juridikoaren arabera aretoan nahitaez egon behar dela erregearen erretratua.

Carmen Díaz cree que la justicia tendrá que valorar las actuaciones de Juan Carlos I. Apoya retirar el busto ya que actualmente no ejerce el cargo de jefe del Estado y, de conformidad con el régimen jurídico, recuerda que es obligatoria la presencia de un retrato del rey.

Javier Elorzak gogorarazi du Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideak 85. artikuluaren 2. puntuan ezartzen duela erregearen irudia egon behar dela bilkura aretoko lehentasuneko toki batean, eta egungo erregearen irudia

Javier Elorza recuerda que el Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales en su art. 85 punto 2, indica que en un lugar preferente del salón de sesiones estará colocada la efigie de su majestad el rey y pide que se coloque la

jartzeko eskatu du. Mozioaz esan du errege emeritua ezinbestekoa izan zela demokrazia ezartzeko. Gaur egun Suitzako fiskal bat Juan Carlos I.aren bizitza pribatuko kontu batzuk ikertzen ari da. Uste du mozioan ez dela errespetatzen errugabetasun-presuntzioa. Beraren ustez Getxoko Udalaren osoko bilkura ez da toki egokia horren gaineko eztabaidarako. EH Bilduri esan dio zama bat dutela aldean, eta deigarria dela kezkatuago egotea errege emerituaren jardun pribatuengatik ETAk egindako 500etik gora hilketengatik baino.

efigie del actual monarca. Manifiesta, sobre la moción, que la figura del rey emérito fue determinante para la implantación de la democracia. Lo que en este momento existe es una investigación de una fiscalía suiza sobre cuestiones que responden a la vida privada de Juan Carlos I. Cree que la moción no respeta la presunción de inocencia. Opina que no es un debate que corresponde al pleno del Ayuntamiento de Getxo. Manifiesta a EH Bildu que con la mochila que tienen, les llama la atención que estén más preocupados por las actuaciones privadas del rey emérito que en aclarar más de 500 asesinatos perpetrados por ETA.

Itxaso Masedak esan du ados dagoela Elkarrekin Podemos taldeak esandakoarekin. PSE-EEri eta PPei esan die erregearen irudia ipini beharra ezin zaiola aplikatu Juan Carlos I.ari. Ez dute ezer esango estatuaren demokratizazioan eduki zuen egitekoaz; uste du osoko bilkura honetan ez dela aintzat eduki behar Juan Carlos I.ak demokraziaren alde egin omen zuena.

Itxaso Maseda manifiesta su acuerdo con las declaraciones de Elkarrekin Podemos. Al PSE-EE y al PP les manifiesta que la obligatoriedad de la efigie del rey no es de aplicación a Juan Carlos I. No van a entrar en el papel que jugó en la democratización del estado y que ella no considera que puede intervenir en este pleno por el apoyo a la democracia que pudo hacer Juan Carlos I.

Paula Amievak esan du ez direla sartukmo errege emerituaren jardunaren inguruko eztabaidan; bere taldeak bustoa kentzearen alde egingo du, besterik ez. Talde popularrari adierazi dio jarrera bera eduki behar luketela aipatu duten arautegiarekin bat etorriz, errege emeritua gaur egun ez baita estatuburua.

Paula Amieva manifiesta que no van a entrar en el debate de la actuación del rey emérito y se limita a apoyar que se retire el busto e indica al grupo popular que su planteamiento debería ser el mismo en aplicación de la normativa que han citado ya que actualmente no es jefe del estado.

Mozioa bozkatu dute eta hauxe izan da emaitza: 19 boto alde (EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos) eta 5 boto kontra (PP).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin podemos, 5 votos en contra, PP.

Gehiengoak onartutako mozioa:

Por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Bereziki larriak dira Juan Carlos

Son especialmente graves los distintos

Borboikoari eragiten dioten ustelkeria kasuak, iruzur fiskala eta diru-zuriketa.

casos de corrupción, fraude fiscal, blanqueo de dinero, de los que se ha tenido conocimiento público que afectan a Juan Carlos de Borbón.

Joan den martxoaren 3an, La Tribune de Geneve egunkari suitzarrak Suitzako Fiskaltzak egindako ikerketaren berri eman zuen. Bertan, Saudi Arabiako Erregeak Juan Carlos Borboikoa erregeari emandako 100 milioi dolarreko dohaintzaren nondik norakoak agertzen dira. Kopuru hori herrialde horretako banku batean sartu zen, Mekara abiadura handiko trena eramateko kontratuaren bitartekaritza-lanengatik.

El pasado 3 de marzo, el diario Suizo La Tribune de Geneve hacía público la investigación de la Fiscalía suiza sobre una donación de 100 millones de dólares del Rey de Arabia Saudí al Rey Juan Carlos de Borbón, fruto de su intermediación en el contrato del AVE a La Meca, "pago de comisiones" que fue supuestamente depositada en un banco de ese país.

Duela gutxi, Espainiako ustelkeriaren aurkako Fiskaltzak ere Auzitegi Gorenera igorri ditu Juan Carlos Borboikoa forudun izateagatik obra hau gauzatzean nazioarteko transakzioetan izandako ustezko ustelkeria-delitu bati buruzko eginbideak.

Recientemente, también la Fiscalía Anticorrupción española ha remitido al Tribunal Supremo las diligencias abiertas sobre un presunto delito de corrupción en transacciones internacionales en la ejecución de esta obra debido a la condición de aforado de Juan Carlos de Borbón.

Horregatik guztiagatik, Getxoko EH Bilduk honako akordio hau proposatzen dio Getxoko Udaleko osoko bilkurari:

Por todo ello, desde EH Bildu Getxo proponemos el siguiente acuerdo al pleno municipal del Ayuntamiento de Getxo:

- Juan Carlos Borboikoaren bustoa Getxoko udaletxeko ekitaldi-aretotik kentzea.

- Retirar el busto de Juan Carlos de Borbón del salón de actos del Ayuntamiento de Getxo.

**78.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PORTU ZAHARREKO ETXETXUA BABESTEA.**

**78.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ PROTECCIÓN DEL EDIFICIO "ETXETXU" DEL PUERTO VIEJO.**

Itxaso Masedak ondorengo mozioa irakurri du:

Itxaso Maseda da lectura a la siguiente moción:

Algortako portu zaharrean dagoen "Etxetxu" eraikina egoera larrian dago gaur egun. Kanpotik ematen duen itxura ikustea besterik ez dago egoeraz jabetzeko. Azken hiru urteetan bere

El edificio "Etxetxu", situado en el Puerto Viejo de Algorta se encuentra actualmente en estado grave. Basta con apreciar desde fuera el aspecto que tiene para darse cuenta de la situación.

egoerak okerrera egin du eta urtarriletik erabilera publikoa duen estalitako plaza itxita dago. Portu zaharreko auzokideek eta bisitariek, beraz, ez dute bertan batzeko aukerarik: hesi batek plazara sartzea eragozten du, eta eraikinaren zutabe nagusiak apuntalatuta daude.

En los últimos tres años su situación ha empeorado y desde enero la plaza cubierta de uso público permanece cerrada. Los vecinos y visitantes del Puerto Viejo, por tanto, no tienen posibilidad de reunirse en su interior: una valla impide el acceso a la plaza y los pilares principales están apuntalados.

Plaza hau da portu zaharreko auzokideen topaleku nagusia: bizilagunekin batzeko, euria egiten duenean bertan elkartzeko, jarduerak antolatzeko (Auzokidearen Eguneko bazkaria, Portu Zaharreko jaietako kartelaren aukeraketa eta abar). Sei hilabete hauetan, beraz, plaza horren erabilera publikoa ez da bermatu, eta auzokideek ezin izan dute erabili.

Esta plaza es el punto de encuentro principal de los vecinos del Puerto Viejo: para reunirse con los convecinos, juntarse allí cuando llueve, organizar actividades (comida del Día del Vecino, elección del cartel de fiestas del Puerto Viejo, etc.). Durante estos seis meses, por tanto, no se ha garantizado el uso público de esta plaza, que no ha podido ser utilizada por los vecinos.

Ez dago gogoratu beharrik zein den Etxetxuaren balio historiko eta sinbolikoa: XVII. mendean sortutako eraikin honek arrantzaleen kofradia eta Getxoko udaletxea hartu zuen, besteak beste. Algortako portu zaharreko erreferente nagusia da zalantzarik gabe.

No hace falta recordar cuál es el valor histórico y simbólico de Etxetxua: este edificio, construido en el siglo XVII, acogió a la cofradía de pescadores y la Casa Consistorial de Getxo, entre otros. Es sin duda el principal referente del Puerto Viejo de Algorta.

2016. urtean Etxetxua salgai egon zen, eta Getxoko Udalak aukera galdu zuen eraikina erosi eta babesteko. Geroztik, ikusi ahal izan dugun bezala, eraikinaren egoerak okerrera egin du, gaur egungo egoerara arte.

En 2016 Etxetxua estuvo en venta y el Ayuntamiento de Getxo perdió la oportunidad de comprar y proteger el edificio. Desde entonces, como hemos podido apreciar, el estado del edificio ha empeorado, hasta llegar a su situación actual.

Ezinbestekoa da erakunde publikoek gure herriko nortasuna eta historia osatzen duen ondare historikoa babestea eta bere erabilera publikoa bermatzea. Are gehiago, gainera, ondare publiko hori arriskuan dagoenean, Etxetxuaren kasuan bezalaxe.

Es imprescindible que las instituciones públicas protejan el patrimonio histórico que constituye la identidad y la historia de nuestro pueblo y garantizar su uso público. Máxime cuando, además, ese patrimonio público está en peligro, como ocurre en el caso de Etxetxua.

Gauzak horrela, eta bere egoera larria ikusirik, honako akordio proposamena aurkezten diogu Osoko Bilkura honi, eztabaidatu eta adostu dezan.

Por todo ello y dada su grave situación, presentamos la siguiente propuesta de acuerdo a este Pleno para su debate y acuerdo.

1. Getxoko Udalak berehala eta era subsidiarioan eraikinaren osotasuna eta jendartearen segurtasuna bermatze aldera beharrezkoak diren konponketak egingo ditu.

2. Getxoko Udalak eraikina bereganatzeko eta bere izaera publikoa bermatzeko beharrezko urratsak emango ditu.

3. Getxoko Udalak eraikin horretarako erabilera publikoa bermatzen duen erabilera proiektua egingo du Portu Zaharreko auzokideekin elkarlanean.

Itxaso Masedak azaldu du zergatik aurkeztu duten berriro gai hau: egoera larriagoa da, eraikina habetu behar izan da eta plazaren erabilera publikoa eten da. Herritarrak arduratan daude higiezinaren nola dagoen ikusita eta inguruan egin diren obren ondorioz izan dituen kalteak direla eta. Adierazi du talde guztiak onartzen dutela eraikinaren balio historikoa eta Udalak hura eskuratzeko aukera dagoela. Uste du erosi behar dela, birgaitu eta gero, herritarren iritziak entzunda, nola erabili erabaki.

Paula Amievak adierazi du eraikina geroz eta narriatuago dagoela eta arazoari heldu behar zaiola konponbideak aurkitzeko, ondare historikoa babestu behar da eta. Eraikinaren jabeak ezin du bermatu egituraren artapena; hori ikusita, Udalak esku hartu behar luke eta, beharrezkoa bada, haren jabe egiteko urratsak egin ere bai. Kultura ondarearekiko ardura eduki behar da.

Gonzalo Ayok esan du 2016. urtean

1. El Ayuntamiento de Getxo realizará de forma inmediata y subsidiaria las reparaciones necesarias para garantizar la integridad del edificio y la seguridad del público.

2. El Ayuntamiento de Getxo dará los pasos necesarios para hacerse con el edificio y garantizar su carácter público.

3. El Ayuntamiento de Getxo, en colaboración con los vecinos del Puerto Viejo, elaborará un proyecto de uso, que garantizará el uso público de este edificio.

Itxaso Maseda indica que han vuelto a presentar el tema porque la situación se ha vuelto más urgente, ya que se ha tenido que apuntalar el edificio y se ha cerrado el uso público de la plaza. La vecindad está preocupada por la situación del inmueble y de los daños que ha sufrido a consecuencia de las obras habidas en el entorno. Manifiesta que todos los grupos están de acuerdo con el valor histórico de dicho edificio y que existe la posibilidad de que el ayuntamiento adquiera dicho inmueble y cree que debe adquirirse, rehabilitarse y decidir, con la vecindad, los usos del edificio.

Paula Amieva manifiesta que cada vez el edificio está en peores condiciones y es necesario abordar el problema y actuar buscando soluciones ya que hay que proteger el patrimonio histórico. En vista de que la propiedad del edificio no puede garantizar la estructura el ayuntamiento debería actuar y si es necesario dar pasos respecto a la adquisición de la propiedad. Hay que demostrar sensibilidad respecto al patrimonio cultural.

Gonzalo Ayo manifiesta que en el año

partikular batzuek eraikina erosi zutela eta lizentzia eskatu zutela; lizentzia hori iraungitzeko zorian dago, ez baita egokia eskatutako jarduerarako. Jabeekin bildu gara irtenbide bat aurkitzeko, eta uste du kalteak balioetsi behar direla eta jabeei konpontzeko eskatu, Udalak berak zuzenean esku hartu beharrean. Beraz, ez dute mozioa babestuko. Azkenik, esan du ondo deritzotela eraikina herritarren erabilerarako eta gozamenerako erosteko aukera aztertzeari.

2016 unos particulares adquirieron el edificio y solicitaron una licencia que está a punto de caducar porque no se han adecuado a la actividad solicitada. Se han mantenido reuniones con la propiedad para una salida y estima que lo necesario es valorar los daños y requerir a los propietarios que lo reparen, pero no intervenir el ayuntamiento de manera directa, por lo que no apoyarán la moción. Finaliza indicando que no ven mal la que se estudie la posibilidad de adquirir el edificio para uso y disfrute público.

Eduardo Andradek esan du bat datorrela kezkarekin, baina ez zaio ondo begitantzen Udalak eraikina bere kargu hartzea, lehendik ere bertan behera utzitako eraikin asko dauzka eta, esaterako San Martin, Benturillena, Usategi kafetegia, eta abar. Horien guztien egoeraren errua gobernu-taldearen utzikeria da beraren ustez. Uste du jabeei eskatu behar zaiela eraikina konpontzeko eta konponketa-lanetan Portu Zaharraren eiteari lotzeko, ez dadin berriz gerta beste kasu batzuetan gertatutakoa, hau da, obrek ez errespetatzea ingurua. Kontrako botoa emango dute, Udalak erosteak ez bailuke bermatuko eraikinaren artapena.

Eduardo Andrade indica que comparte la preocupación pero no que el ayuntamiento se haga cargo del edificio ya que su experiencia como propietario es que tiene muchos edificios abandonados, poniendo como ejemplos los de San Martín, Benturillena, cafetería Usategi, etc., situación de abandono que atribuye a la desidia del equipo de gobierno. Cree que hay que reclamar a la propiedad que arregle el edificio y que en su actuación de reparación se ajuste al entorno del Puerto Viejo, para evitar como se ha hecho en otros casos que no se ha respetado dicho entorno. Votarán en contra ya que no es garantía de mantenimiento del edificio que lo adquiera el ayuntamiento.

Alvaro Gonzálezek eraikinaren balio historikoa onartu du, bai eta sentimentala ere, baina esan du jabetza pribatukoa dela. Esan du udalerrian balio historiko eta arkitektonikoak dauzkaten 300 eraikin pribatu baino gehiago daudela. Udalak kontrol-lanak egin ditu, eta azken bost urteetan bost alditan baino gehiagotan esku hartu du. Jabeek zenbait erabilera-aukera aurkeztu dituzte, baina ez dira gauzatu. Uste du eraikina erosi zutenean ez zituztela kontuan eduki arriskuak. Ez dauka zentzurik Udalak erosteko urratsak egiteak, aurretik zertarako

Alvaro González reconoce el valor histórico y sentimental del edificio pero incide que es de propiedad privada. Manifiesta que hay más de 300 edificios con valores históricos y arquitectónicos de propiedad privada en el municipio. El ayuntamiento realiza labores de control y en este edificio ha actuado en los últimos años más de cinco veces. La propiedad ha planteado distintas opciones de uso que no se han llevado a cabo y cree que adquirieron el edificio sin valorar los riesgos que conllevaba y el ayuntamiento no tiene sentido que empiece a dar pasos para su

erabiliko den jakin gabe. Berriro esan du konponketak jabeek egin behar dituztela, eta Getxoko Udalak modu subsidiarioan esku har dezakeela, gehienez ere. Azkenik, esan du laster inguru horretan Udalak daukan eraikin bat gaituko dela zenbait talderen egoitza izateko.

adquisición si no está definida cual podría ser su finalidad. Insiste en que la reparación debe realizarla la propiedad y en todo caso intervenir subsidiariamente el Ayuntamiento de Getxo. Finaliza indicando que próximamente se va a adecuar un edificio municipal del entorno para dar cabida a diferentes colectivos.

Itxaso Masedak uste du Udalak eraikinaren ardura hartu behar duela eta erosteko aukera aztertu behar duela. Beraren ustez gobernu-taldeak moziorik tarteko ez dela ere egin behar luke hori, baina ikusirik zer egin duen Romoko Nagusien Etxean, argi dago ez diola batere ardurarik ondarea babesteak.

Itxaso Maseda opina que el ayuntamiento tiene la obligación de preocuparse por el edificio y estudiar la adquisición. Cree que es una actuación que debería realizar el equipo de gobierno sin que sea necesario que se presenten mociones para ello, pero viendo la actuación del equipo de gobierno con la Nagusien Etxea de Romo parece claro que no le preocupa preservar el patrimonio.

Mozioa bozkatu dute eta ezetsi egin dute: aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 boto (EAJ, PP eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

**79.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO KULTUR SORTZAILEEKIN EGITARAUA SORTZEA.**

**79.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ PROPUESTA DE CREACIÓN DE UN PROGRAMA CON CREADORES CULTURALES DE GETXO**

Nerea Guijarrubiak ondorengo mozioa irakurru du:

Nerea Guijarrubia da lectura a la siguiente moción:

Bizitzen ari garen osasun-krisiak oso ondorio larriak sortu ditu gure gizartearen arlo guztietan. Larriena, zalantzarik gabe, herritarren osasunarekin lotutako ondorioak dira, eta horrek izan behar du erakunde eta eragile sozialen lehentasuna: herritarren bizitzak babestea, elkarlan eta zaintzaren bidez.

La crisis sanitaria que estamos viviendo ha generado gravísimas consecuencias en todos los ámbitos de nuestra sociedad. Lo más grave, sin duda, son las consecuencias relacionadas con la salud de los ciudadanos, y ésa debe ser la prioridad de las instituciones y agentes sociales: proteger las vidas de los ciudadanos mediante la colaboración y el cuidado.

Osasunean eragindako krisiaz gain, egoera berezi honek ere ondorio larriak

Además de la crisis causada en la salud, esta situación especial también ha

sortu ditu gure herriko ekonomian: dendari txikiak, autonomoak, industria, zaintzetako langileak eta abar.

generado graves consecuencias en la economía de nuestro pueblo: pequeños tenderos, autónomos, industria, trabajadores-cuidadores, etc.

Eta baita kultur sortzaile eta artisten kasuan ere. Kultura da, zalantzarik gabe, krisi honek gogorren kolpatu duen sektoreetako bat: lau hilabetez ikuskizun guztiak bertan behera geratu dira, jaietako egitarauak bertan behera geratu dira... Eta horrek guztiak berez oso prekarizatua dagoen sektore batean prekarietatea handitzea ekar dezake.

Y también en el caso de los creadores culturales y artistas. La cultura es, sin duda, uno de los sectores más golpeados por esta crisis: durante cuatro meses se han suspendido todos los espectáculos, se han suspendido los programas de fiestas... Y todo ello puede suponer un aumento de la precariedad en un sector ya de por sí muy precarizado

Soinu, argiztapen, eszenografia eta bestelako teknikarien egoera ere nabarmendu nahi dugu. "Itzalean" lan egiten dute normalean, teloiaren bestaldean, eta orain ere "itzalean" geratzen ari dira, diru-laguntzetatik kanpo, online egitarau askotatik kanpo eta abar. Eurentzat ere, beharrezkoa da konponbide duinak bilatzea.

También queremos destacar la situación de los técnicos de sonido, iluminación, escenografía y otros. Trabajan normalmente "en la sombra", al otro lado del telón, y ahora también se están quedando "en la sombra", fuera de las subvenciones, de muchos programas online, etc. También para ellos es necesario buscar soluciones dignas.

Diru-laguntzak onartzerako orduan ere, kultura bigarren mailakotzat jo da erakunde askotan, lehen mailako lehentasuna izango ez balitz bezala. Horren adibide dira Eusko Jaurlaritzatik onartu diren diru-laguntzak kulturgintzarentzat, zozketa bidez esleitzeko asmoa eta abar.

Incluso a la hora de aprobar las subvenciones, la cultura se ha considerado secundaria en muchas instituciones, como si no fuera una prioridad de primer orden. Ejemplo de ello son las subvenciones que se han aprobado desde el Gobierno Vasco para la industria cultural, la intención de adjudicarlas por sorteo, etc.

Hurrengo hilabeteetan, gainera, egoera orokorrak okerrera egin dezake, hainbat erakundek murrizketak egin ditzaketelako kulturaren arloan, azpiegitura faraonikoen eraikuntza bultzatzen jarraitzen duten bitartean.

En los próximos meses, además, la situación general puede empeorar porque varias instituciones pueden recortar en materia cultural mientras siguen impulsando la construcción de infraestructuras faraónicas.

Gure herriari dagokionez, orain arte antolatu diren ekimenez gain (Getxoko balkoiak, Getxoarteren "Artista bat auzoan"...) beharrezkoa da Getxoko artista eta kultur sortzaileei begira beren-beregi plangintza eta egitarau

En lo que respecta a nuestro pueblo, además de las iniciativas que se han venido organizando hasta ahora (balcones de Getxo, "Un artista en el barrio" de Getxoarte...) es necesario crear una planificación y un programa

propio bat sortzea. Beste hainbat udalerrik eta eragilek formatua aldatu eta kultur jarduerak antolatzen hasi dira jada: streaming bidezko zuzeneko jarduerak aretoetan, ohiko kultur programazioa baina aforoa jaitsita eta abar,

propio y específico de cara a los artistas y creadores culturales de Getxo. Otros municipios y agentes ya han cambiado el formato y han comenzado a organizar actividades culturales: actividades en directo en streaming en las salas, programación cultural habitual pero rebajando el aforo, etc.

Hori guztia kontuan hartuta, honako akordio-proposamena aurkezten diogu Getxoko Osoko Bilkurari:

Teniendo en cuenta todo ello, presentamos la siguiente propuesta de acuerdo al Pleno de Getxo:

- Getxoko Kultur Etxeek, Muxikebarrik eta Musika Eskolak programazio berezia sortuko dute Getxon erroldatutako kultur sortzaileekin. Egitarau horrek diziplina ezberdinekin osatuko da: musika, dantza, antzerkia eta abar.

- Los Centros Culturales de Getxo, Muxikebarri y Musika Eskola crearán una programación especial con creadores culturales empadronados en Getxo. Este programa se completará con diferentes disciplinas: música, danza, teatro, etc.

- Egitarau hori, modu presentzial edo streaming bidez eskainiko da. Streaming bidez egitekotan, zuzenean grabatuko da udal areto batean. Horretarako beharrezkoak diren soinu, argi, eszenografia eta bestelako teknikariak kontratatuko dira.

- Esta programación se ofrecerá de forma presencial o en streaming. En caso de hacerlo por streaming, se grabará en directo en una sala municipal. Para ello se contratarán los técnicos de sonido, luz, escenografía y otros, necesarios.

- Getxoko Udalak deialdi publikoa egingo du herrian erroldatuta dauden kultur sortzaile eta artistek euren proposamenak bidal dezaten.

- El Ayuntamiento de Getxo hará una convocatoria pública para que los creadores y artistas culturales censados en la localidad envíen sus propuestas.

- Ekoizpen gastu guztiak Kultur Etxeak hartuko ditu bere gain. Artista bakoitzaren aurrekontua onartzeaz gain, sarreren bidez jasotakoa sortzaileei bideratuko zaie. Sortzaile bakoitzak ez du bere sarreren dirua eskuratuko: poltsa amankomun bat sortuko da sarreren diru guztia denon artean banatzeko.

- Todos los gastos de producción correrán a cargo de la Casa de Cultura. Además de aprobar el presupuesto de cada artista, lo recibido a través de las entradas se destinará a los creadores. Cada creador no obtendrá el dinero de sus entradas: se creará una bolsa común para repartir entre todos la totalidad del dinero de las entradas.

Nerea Guijarrubiak esan du mozioa aurkezteko arrazoia izan dela kulturaren arloa bigarren mailan geratu dela, zeren eta, osasun-arrazoiak direla eta, oraindik Getxon ezin baita antolatu kultur jarduerarik, nahiz eta beste

Nerea Guijarrubia indica que la moción se presenta porque el mundo cultural ha quedado en una segunda categoría ya que aún no hay posibilidad en Getxo, por cuestiones sanitarias, para la organización de actividades culturales

udalerri batzuetan dagoeneko hasita egon halako ekitaldien programazioak, zuzenean zein streaming-ean Udalaren jarrera kritikatu du; izan ere udalerriko kultura-azpiegitura handi bat, Muxikebarri, itxita dago oraindik. Gobernu-taldea zerbait aztertzen ari bada, oposizioko taldeek ez daukate inongo berririk. Esan du EH Bilduk proposamen batzuk aurkeztu zituela martxoan eta gobernu-taldeak ez dituela kontuan hartu. Beraren iritziz, gai honetan gobernu-taldeak berandu eta txarto erantzun du, beste askotan bezala, eta eskatu du berriz ere ekiteko kultur jarduerei, osasuna behar bezala babestuta, ezinbestekoa baita, bai sektoreko langileentzat, bai herritarrentzat.

pese a que en otros municipios se están ya programando actos culturales en directo o en streaming. Critica esta actitud municipal pese a tener una gran infraestructura como es Muxikebarri, que sigue cerrada. Si el equipo de gobierno está estudiando algo los grupos de la oposición no lo conocen. Indica que EH Bildu presentó en marzo unas propuestas que no se han tenido en cuenta por el equipo de gobierno. Estima que el equipo de gobierno en este tema, como en otros muchos, responde tarde y mal y pide que se reactive la actividad cultural con las condiciones sanitarias precisas porque es necesario la reactivación tanto para el sector como para la ciudadanía.

Paula Amievak uste du neurri azkarragoak eta eraginkorragoak ezarri behar direla kulturaren arloko taldeei laguntzeko, beste udalerri batzuetan egin den bezala. Ez daki zer ari den egiten Udaleko Kultura Arloa sektorea suspertzeko. Bat datoz EH Bilduren proposamenarekin, eta prest egongo lirateke ideiak ekartzeko. Ahalik azkarren esku hartu behar dela esan du.

Paula Amieva estima necesario que se adopten medidas más rápidas y eficaces para ayudas a los colectivos tal y como se ha observado en otros municipios. Desconoce qué están haciendo desde el área de Cultura para revitalizar el sector. Comparte la propuesta de EH Bildu y estarían dispuestos a aportar ideas y recalca la necesidad de actuar cuanto antes.

Gonzalo Ayok esan du pandemiak kulturaren sektoreari ere eragin diola, eta Pedro Sánchezen gobernuak sektore horretarako laguntzak planteatu dituela. Getxon lanean ari gara udalerriko sortzaileekin, Kultur Etxean adierazi zen bezala. Lan hori ez da eragotzi behar, eta horregatik mozioaren kontra bozkatuko dute.

Gonzalo Ayo indica que la pandemia ha tenido también efectos en el sector cultural y por ello el gobierno de Pedro Sánchez ha planteado ayudas a dicho sector. En Getxo se está trabajando con creadores del municipio y así se manifestó en el Aula de Cultura y para evitar condicionar dicho trabajo votarán en contra de la moción.

Alicia González del Vallek talde popularraren izenean esan du pandemiak sektore guztiak ukitu dituela eta kultura-sormenaren munduak kalte handia jasan duela. Proposamenera mugatuko da, hau da, Getxora. Ez du aurkitu Getxoko artisten erroldarik, eta eduki nahi luke, hainbat datu jakiteko: dauden laguntzak jaso

Alicia González del Valle en nombre del grupo popular indica que la pandemia ha afectado a todos los sectores y el mundo de la creación cultural ha sido fuertemente afectado. Se va a limitar a la propuesta y consecuentemente a Getxo. No ha encontrado un censo de artistas de Getxo y le gustaría conocerlo y saber si

dituzten, zenbat diren autonomoak, zenbat enplegatuak, eta abar. Kultur Etxeak esan zuen egin litezkeen programazioak aztertzen ari direla. Esan du ekitaldiak lokal itxietan ezin badira egin, kanpoan egin daitezkeela, ahal dela. Gainera, uste du instalaziok laga behar zaizkiela herriko taldeei. Ez du ulertzen zergatik ordaindu behar diren produkzio.gastu guztiak, egoera pribilegiatuan ipintzea izango litzateke eta; beraren ustez mozioak planteatzen duena, dirua banatzea ekitaldietan aritu diren artisten artean, ez da kultura-sormena bultzatzeko formula egokia.

se han acogido a las ayudas existentes, cuántos son autónomos, cuántos son empleados, etc. El Aula de Cultura informó que se están estudiando las programaciones que se puedan realizar. Plantea que si no se pueden realizar en un local cerrado se realicen, en la medida de lo posible, al aire libre. Cree que también hay que ceder instalaciones a colectivos locales. No entiende por qué hay que pagarle todos los gastos de producción ya que sería ponerles en una situación privilegiada y opina que lo que plantea la moción de repartir el dinero entre todos los artistas que han intervenido en los diferentes eventos no es una fórmula que incentive la creación cultural.

Irantzu Uriartek esan du duela egun gutxi hasi dela normaltasun berria eta oraindik mugak daudela kultura-ekitaldiak egiteko. Konfinamenduan presentzialak izan ez diren ekitaldiak izan dira. Azaldu egin ditu. Elkarteak direla eta, diru-laguntzen deialdiak egin dira, eta laster beste bat ere egingo da. Kontratutako emanaldiak beste egun batzuetan egiteko eskaerak onartu dituzte, bertan behera utzi beharrean, eta, gainera, hitzartutako prezioaren % 30 aurreratuko dute. Egoera berrira moldatutako kultura-agenda berria prestatzen ari dira, herriko eta inguruko artistei lehentasuna emanda. Berak ere kezkatuta daude, baina adierazitakoa dela eta, abstenitu egingo dira.

Irantzu Uriarte indica que hace pocos días se ha iniciado la nueva normalidad que recoge todavía limitaciones respecto a la celebración de actividades culturales. Durante el confinamiento se han realizado actividades no presenciales que explica. Respecto a las asociaciones, se han realizado las convocatorias de subvención y se va a realizar también una nueva convocatoria de subvención. Han asumido las peticiones de realizar las funciones contratadas fijándose nuevas fechas sin suprimir las mismas y también adelantar el 30% del precio convenido. Están preparando la nueva agenda cultural adaptada a la nueva situación y priorizando a los artistas locales y del entorno. Comparten la preocupación pero en base a lo indicado se abstendrán.

Nerea Guijarrubiak esan du ondorioa, eta errealitatea, dela bi hilabetean ez dela kultura-eskaintzari egon, eta horrek erakusten duela gobernu-taldea berandu dabilela. Konfinamendu-aldian kultura garrantzitsua izan da; bada, garrantzi hori aintzatetsi behar da eta eta programazioetan islatu behar da. Talde popularrari esan dio ez duela

Nerea Guijarrubia indica que la conclusión y la realidad es que en dos meses no ha existido oferta cultural, lo que evidencia que el equipo de gobierno anda tarde. En el periodo de confinamiento la cultura ha tenido una importancia y esa importancia hay que reconocerla y tiene que reflejarse en las programaciones. Al grupo popular le

mezua ulertu eta EH Bilduk ez dakiela zertan ari den gobernu-taldea; dakien gauza bakarra da gaiak aztertzen ari direla, baina zerbait egin behar da eta gobernu-taldea berandu dabil bere ardurapeko egitekoetan.

indica que no ha entendido su mensaje y EH Bildu no tiene conocimiento de lo que está realizando el equipo de gobierno, solo sabe que están estudiando los temas pero hay que actuar y su responsabilidad el equipo de gobierno está ejerciéndola tarde.

Mozioa bozkatu da eta ezetsi egin da: 5 boto alde (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos), 5 boto kontra (PP) eta 14 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 5 votos en contra, PP; 14 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Berdinketa egon denez, bozketa berriz egin da, eta emaitza aurrekoa bera izan da; beraz, mozioa ezetsi da.

Al resultar empate se vuelve a proceder a una nueva votación que obtiene el mismo resultado por lo que se desestima la moción.

**80.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: OSTALARITZA SEKTOREAREKIN NEGOZIAZIO MAHAIA SORTZEA.**

**80.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ CREACIÓN DE UNA MESA DE NEGOCIACIÓN CON EL SECTOR HOSTELERO.**

Ibon Rodríguezel ondorengo mozioa irakurri du:

Ibon Rodríguez da lectura a la siguiente moción:

Getxoko ostalaritza sektorea, beste herrien kasuan bezala, bolada txarra pasatzen ari da. Konfinamendu osoan zehar taberna eta jatetxeak itxita mantendu behar izan dituzte, gastu asko bere horretan mantentzen zirenean. Eta Getxoren kasuan gastu hauek ez dira gutxi. Gainera, badago oraindik ere pertsiana igo ezin duenik.

El sector hostelero de Getxo, como en el caso de otras localidades, está pasando por una mala racha. Durante todo el confinamiento han tenido que mantener cerrados bares y restaurantes, a pesar de que muchos de sus gastos se mantenían. Y en el caso de Getxo estos gastos no son pocos. Además, todavía hay quien no puede subir la persiana.

Getxon neurriak berandu hartu dira, ostalariei ez zaie kasurik egin eta aitzakiak gailendu dira. Zerga eta tasa asko ere, oraingoz behintzat, bere horretan mantendu dira. Gure proposamenak jakinak dira, eta beraz ez gara arlo honen inguruko eztabaidan sartuko. Leku batzuetan egin dena hemen ez da egin, ez behintzat tamaina berean. Ezin izan delako, ez delako jakin zelan egin, edo ez delako nahi izan.

En Getxo las medidas se han tomado tarde, no se ha hecho caso a los hosteleros y se han impuesto las excusas. También muchos impuestos y tasas, al menos de momento, se han mantenido. Nuestras propuestas son conocidas, y por lo tanto no vamos a entrar en el debate sobre esta materia. Lo que se ha hecho en algunos sitios aquí no se ha hecho, al menos no en la misma dimensión. Porque no se ha podido, no se ha sabido cómo hacerlo, o

no se ha querido.

Honek guztiak, sektorean haserre eta ezinegon handia sortu du. Ez derrigorrez udal-gobernuaren kudeaketarekiko, nahiz eta batzuen kasuan hala den. Badaude, beste barik, egoerak berak sutzen dituen ostalariak. Dena delakoa, Getxon duen pisua ikusita, arrazoizkoa iruditzen zaigu arlo honetan hartu beharreko erabaki eta neurrien inguruan beraiekin hitz egitea zuzenean. Interlokutore kapazak dira, eta zilegitasuna dute gai honetan proposamenak egiteko.

Todo esto ha generado un gran enfado y malestar en el sector. No necesariamente con respecto a la gestión del gobierno municipal, aunque en el caso de algunos lo es. Hay, simplemente, hosteleros a los que la propia situación les indigna. Sea como fuere, dado su importancia en Getxo, nos parece razonable hablar directamente con ellos sobre las decisiones y medidas a tomar en esta materia. Son interlocutores capaces y tienen legitimidad para hacer propuestas en este tema.

Noski, sektore honetaz ari garenean, errealitate anitzeko sektore batez ari gara. Taberna eta jatetxeen jabeak, edo nahiago bada langile autonomoak, daude alde batetik. Batzuek euren kabuz funtzionatzen dute, familia negozio bezala. Beste batzuek jendea daukate kontratatuta. Soldatapeko langile hauek ere kontutan hartu behar dira, argi dago. Proposamenek, gutxienez, bi errealitate hauek hartu beharko dituzte kontutan.

Claro, cuando hablamos de este sector, estamos hablando de una actividad que comprende muchas realidades. Los propietarios de bares y restaurantes, o si se prefiere trabajadores autónomos, están por un lado. Algunos funcionan por sí solos, como negocios familiares. Otros tienen gente contratada. A estos trabajadores asalariados también hay que tenerlos en cuenta, evidentemente. Las propuestas deberán tener en cuenta, al menos, estas dos realidades.

Horrenbestez, EH Bilduk honako akordio proposamena dakar, udalbatza honek eztabaidatu eta adostu dezan:

Por lo tanto, EH Bildu presenta la siguiente propuesta de acuerdo para su debate y acuerdo por esta Corporación:

1. Getxoko Udalak, udalerriko ostalariekin batera, sektorearen egoera aztertu eta beharrezko erabakiak hartzeko mahaia osatuko du.

1. El Ayuntamiento de Getxo, junto con los hosteleros del municipio, constituirá una mesa para analizar la situación del sector y tomar las decisiones necesarias.

2. Mahai honetan, gutxienez, arloko zinegotziak, udal teknikari batek, oposizioko alderdietako kide banak, eta Getxoko ostalarien elkarte bakoitzeko kide banak hartuko dute parte.

2. En esta mesa participarán, al menos, el concejal del área, un técnico municipal, un miembro de cada uno de los partidos de la oposición, y un miembro de cada asociación de hosteleros de Getxo.

Ibon Rodríguezek esan du ez dagoela askorik gehitzeko mozioari, EH Bilduren jarrera krisiaren aurrean

Ibon Rodríguez manifiesta que poco se puede añadir a la moción ya que la postura de EH Bildu es que la crisis es

honako hau baita; krisia handia da eta zerbait egin behar da, kalteak jasan dituzten sektoreak kontuan hartuta; nolanahi ere, oposizioak ez daki zer egiten duen gobernu-taldeak, eta hutsala da osoko bilkuretako jarrerak ezertan aldatu gabe mantentzea, antzerkian ari bagina bezala; aitzitik, lan-mahaia sortu behar da ukitutakoekin ahalik azkarren. Aurreko eztabaida batean iruditu zaio esan dela Udalak datuak aztertu dituela zabor-bilketaren tasak ordaintzeko erabiltzen diru banku-kontuen titularrak nortzuk diren jakiteko; uste du hori esan duena oker ibiliko zela, eta galdetu datuen babesari buruzko legearen zer arautan oinarritu den jarduera hori.

importante y cree que hay que actuar teniendo en cuenta a los sectores afectados, pero la oposición no sabe lo que hace el equipo de gobierno y lo necesario no es mantener sin variar las posiciones en el pleno como si fuera un teatro sino crear una mesa de trabajo con los afectados cuanto antes. En un debate anterior ha creído entender que el ayuntamiento ha revisado datos para conocer titulares de cuentas bancarias en las que se abonan las tasas de basuras y estima que habrá sido manifestación errónea ya que pregunta acerca de en qué precepto de la ley de protección de datos se basa dicha actividad.

Paula Amievak esan du Getxon berandu ari direla heltzen laguntzak; gainera, ukitutakoek eskatutakoa baino gutxiago jasoko dute, hainbanaketa aplikatzen da eta. Egoera askoz hobea litzateke ukitutakoak entzun eta beren proposamenak praktikan ipiniz gero. Eskatu du osoko bilkuran ez hitz egiteko antzerkian bezala, batez ere gaur egungo egoeran. Amaitzeko, esan du mozioaren aldeko botoa emango duela.

Paula Amieva indica que en Getxo se está llegando tarde con las ayudas y además a los afectados les va a llegar menos de lo solicitado porque se aplica el prorrateo. Estas situaciones se mejorarían se escuchara a los afectados y se ponen en práctica sus propuestas. Pide que en el pleno las intervenciones no sean un teatro y menos aún en la situación actual. Finaliza indicando que votará a favor de la moción.

Carmen Díazek esan du argi dagoela ostalaritza kalte handiak jasaten ari dela; gobernu-taldeak ezarri dituen neurriak ezagunak dira, etabat datoz gobernu zentralak eta beste administrazio batzuek ezarritakoekin. Esan du enpresen kontsulta-foroa dagoela eta konponbidea ez dela foro gehiago sortzea, baizik sektoretik gertu ibiltzea, gobernu-taldeak egiten duen bezala.

Carmen Díaz manifiesta que es obvio que la hostelería está siendo muy afectada y el equipo de gobierno ha tomado medidas que se conocen y se suman a las del gobierno central y las de otras administraciones. Manifiesta que hay un foro consultivo de empresas y la solución no viene de crear más foros sino de estar cerca del sector como lo hace el equipo de gobierno.

Eduardo Andradek esan du Udalak bi gauza baino ez dituela egin: itzuli behar ez den laguntza bat ematea, nahiko izan ez dena, eta Getxo bonuak plazaratzea, ostalaritza onarpen urria eduki dutenak. Gobernu-taldeak ez

Eduardo Andrade manifiesta que el ayuntamiento solo ha hecho dos cosas, una ayuda a fondo perdido insuficiente y la emisión de los Getxo bonos que han tenido muy poca aceptación en el sector hostelero. El equipo de gobierno

ditu nahi izan utzi kobratu gabe zabor-bilketaren tasak lokalak itxita egon diren aldian, eta talde popularrak planteatutako zerga-hobariak ere ez ditu onartu. Terrazak direla eta, gehiago kobratuko da handitzeko emandako baimenengatik. Ez datoz bat ostalaritzako mahaia sortzeko proposamenarekin, horretarako foroa baitago, baina uste du inor ez dela salbatuko Udalaren laguntzei esker.

no ha querido dejar de cobrar las tasas de basura el tiempo que han estado cerrados los comercios y tampoco ha admitido las bonificaciones fiscales que ha planteado el grupo popular. Respecto a las terrazas, por las ampliaciones concedidas van a cobrarse tasas. No comparten la propuesta de la creación de una mesa de hostelería porque existe un foro pero cree que nadie se va a salvar por las ayudas del ayuntamiento.

Iñigo Urkitzak berriz ere esan du enpresen kontsulta-foroa dagoela, eta bertan dagoela ostalaritzako mahia; nola diharduen azaldu du. Pandemiaren ondorioz bertan behera gelditu da horren eraketa; egoera horretan, zenbait jarduketa egin dira sektorekoekin: aholkuak eman, prestakuntza eman, bilerak teknikoekin eta bilera tekniko-politikoak. Ostalariek parte hartu dute Getxo bonuaren programaren prestakuntzan. Enpresen kontsulta-foroaren bilerak zer egunetan izango diren adierazi du. Beraren ustez foro hori tresna eraginkorra da adostasunetara heltzeko, eta uste su ez dela beharrezkoa mozioak planteatzen duen mahaia sortzea.

Iñigo Urkitza indica que existe un foro consultivo de empresas en la que está incluida la mesa de hostelería y explica su funcionamiento. Con motivo de la pandemia se ha paralizado su constitución y con esta situación se han realizado diferentes actuaciones de asesoramiento, formación, reuniones con técnicos y reuniones técnico-políticas con el sector. Los hosteleros han participado en la elaboración del programa del Getxo bono. Da cuenta de las fechas previstas de reunión del foro consultivo de empresas que estima que es una herramienta potente de consenso y no cree necesario crear la mesa que plantea la moción.

Ibon Rodríguezek esan du garrantzitsuena ez dela espazioak sortzea, baizik eta haietan zuzen jokatzea. Gogorarazi du sortutako foroak ez zuela izan EH Bilduren sostengua, iruditzen baitzitzaion konplexuegia eta jardunerako motela zela, eta galdetu du ea zenbat aldi bildu den foroa martxoaren 15etik. Esan du ezer egiten ez delako aurkeztu dela mozioa, eta uste du denok batera lan egin behar dugula, alde politikoek eta ukitatukoek.

Ibon Rodríguez indica que lo importante no es crear espacios sino la actitud en los mismos. Recuerda que el foro creado no contó con el apoyo de EH Bildu porque le parece complicado y poco operativo y pregunta cuántas reuniones ha realizado dicho foro desde el 15 de marzo. Manifiesta que la moción se plantea ya que no se ve que se esté actuando y opina que hay que trabajar entre todos los grupos y los afectados.

Paula Amievak ulertzen du mozioa, ez baitakite zertan ari den gobrnu-taldea enpresen kontsulta-foroaz, eta eskatu du foro hori aurkezten denean, kontuan

Paula Amieva comprende la moción ya que desconocen qué está haciendo el equipo de gobierno sobre el foro consultivo de empresas y pide que

edukitzeko talde guztien sentsibilitateak.

cuando se presente el citado foro se tenga consideración con las sensibilidades de todos los grupos.

Mozioa bozkatu da eta ezetsi egin da: aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos), kontrako 14 boto (EAJ eta PSE-EE) eta 5 abstentzio (PP).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE; 5 abstenciones, PP.

**81.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HIRI-UDALEKUAK AKTIBATZEA.**

**81.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/LA ACTIVACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO.**

Paula Amievak mozioa irakurri du. Esan du konfinamendu-aldian haurrak eta nerabeak ikusezinak izan direla eta orain ere ezin dutela itzuli beren sozializazio-tokietara, ikastetxeetara, esate baterako. Uste du udalekuak ez direla bertan behera gelditu behar, baizik eta abian ipini. Beste udalerri batzuetan udalekuak antolatzen ari dira, udalekuei buruzko datuak ematen ari dira, eta uste du beharrezkoak direla, batez ere txikienentzat. Kontua borondate politikoa da, ez baitago debekatuta udalekuak antolatzea. Izan ere, jarduketa publikoa behar da, antolatzeko asmoa dagoen udaleku-ekimen bakarra pribatua da eta.

Paula Amieva da lectura a la moción. Indica que durante el confinamiento la infancia y la adolescencia han sido colectivos invisibilizados y actualmente siguen sin poder volver a sus lugares de socialización como pueden ser los centros educativos. Cree necesario activar las colonias y no suspender las mismas. En otros municipios están organizando colonias, dando datos respecto a las mismas y cree que son necesarias sobre todo para los más pequeños. Es una cuestión de voluntad política y no existe una prohibición para su organización y hacen falta actuaciones públicas ya que la única actuación de colonias que se está planteando es privada.

Gonzalo Ayok onartu du gazteak larri dabiltzala. Udalaren hiri-udalekuak direla eta, adierazi du izena emateko aldia ez zela ohiko egunean hasi pandemiaren erruz. Maiatzaren azkenetan EUDELen gomendioa zen udalekuak bertan behera uztea. Ekainaren erdi aldean arautegiaren arabera udalekuak egin daitezke, baina Getxok etendurari eutsi dio, osasun-segurtasuna aintzat hartuta eta badagoelako astia geroago antolatzeko ziurtasun handiagoarekin. Erabaki bera hartu dute beste administrazio publiko

Gonzalo Ayo reconoce la situación que atraviesan los jóvenes. Respecto a las colonias urbanas municipales indica que la inscripción no se abrió en el plazo habitual por razones de la pandemia. Las recomendaciones de EUDEL a finales de mayo eran de suprimir las colonias. A mediados de junio la normativa posibilita la realización de colonias pero Getxo ha mantenido la suspensión por razones de seguridad sanitaria y porque no hay tiempo para organizarlas con garantías, decisión que también han tomado otras

batzuek ere, foru aldundiek, kasurako. Horrelako jarduerak antolatzen dituzten hirugarren sektoreko entitateei laguntzak emango zaizkie: eskoletako patioak laga, material higienikoa eman, eta abar.

administraciones públicas como las Diputaciones Forales. A las entidades del tercer sector que organicen este tipo de actividades se les va a ayudar con cesiones de patios escolares, material higiénico, etc.

Cristina Zamorak adierazi du pandemiak eragin handia eduki duela haurrengan eta nerabeengan. Bere buruari galdetu dio zergatik ez den gauza Udala jarduerak antolatzeko, entitate pribatuak badira. Udal batzuek udaleku-programak antolatu dituzte normaltasun berrira moldatuta. EH Bildu familia-kontziliazioaren alde dago; gainera, umeek eta nerabeek zabalaldirako eskaintzak edukitzea nahi dugu, eta uste dugu Udalak horren ardura hartu behar duela.

Cristina Zamora manifiesta que el efecto de la pandemia entre los niños y adolescentes ha sido importante. Se pregunta por qué las asociaciones privadas organizan actividades y el ayuntamiento no es capaz de hacerlo. Hay ayuntamientos que han programado colonias de verano adaptándose a la nueva normalidad. EH Bildu apuesta por la conciliación familiar y porque la infancia y la adolescencia cuenten con ofertas lúdicas y que el ayuntamiento debe asumir dicha responsabilidad.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du bat datorrela Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk adierazitakoarekin. Esan du aldi batean foru aldundiek bertan behera utzi zituztela udalekuak, eta Udalak bere udalekuak, orduko egoera nolakoa zen kontuan edukita. Geroztik egoera aldatu da, eta orain Eusko Jaurlaritzak bidea zabaldu du udalekuak antolatzeko, osasun-bermeak betez gero, eta udal batzuek aukera baliatu dute. Uste dute hiri-udalekuak antolatu behar liratekeela, bermeekin, familia-kontziliazioa eta umeen aisialdia errazteko.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica manifiesta que comparte lo indicado por Elkarrekin Podemos y EH Bildu. Indica que en un determinado momento las Diputaciones Forales suspendieron los udalekus y el ayuntamiento sus colonias atendiendo a la situación del momento. Posteriormente la situación ha cambiado y el Gobierno Vasco posibilita la celebración de colonias con garantías sanitarias y hay ayuntamientos que han actuado. Creen que deberían organizarse colonias urbanas con garantías para facilitar la conciliación familiar y el ocio de los pequeños.

Ignacio Uriartek esan du osasun-neurriek gaitz jartzen dutela udalekuen antolamendua; Udalak ez du ezer antolatuko, baina hirugarren sektoreko ohiko entitate laguntzaileei laguntza emango die aurtengo udan udalekuak eskain ditzaten, mugatuak badira ere; izan ere, aurtengo udan ohiturak ere aldatu beharko dira, osasun-neurrietara moldatzeko.

Ignacio Uriarte manifiesta que las exigencias sanitarias dificultan la organización y el ayuntamiento no va a organizar pero va a apoyar a las habituales entidades colaboradoras del tercer sector que vayan a posibilitar una oferta de colonias aunque sea más limitada este verano, periodo en el que los hábitos van a tener que ir cambiando por exigencias sanitarias.

Paula Amievak esan du inork ez duela zalantzarik osasun-neurrien beharrizanaz, baina uste du udalekuak antolatu daitezkeela, dena eskaintza pribaturako utzi beharrean, horrek kalte egiten baitie gutxien duten familiei. Uste du udalekuak antolatu behar liratekeela familia horiekin zuzen jokatzeko.

Paula Amieva manifiesta que nadie discute la seguridad sanitaria pero que cree que se pueden organizar colonias y no dejar todo a la oferta privada, con lo que se perjudica a las familias más desfavorecidas. Cree que por responsabilidad ante las familias deberían de organizarse las colonias.

Gonzalo Ayok erantzun dio esanez lehen azaldu duela zergatik Udalak ez dituen antolatu udalekuak eta elkarteek bai, eta arrazoiak honako hauek dira: osasun publikoa babestea eta udalekuen konplexutasuna. Izan ere, kontuan eduki behar da udalekuak antolatzeko bidea zabaltzen duen dekretua ekainaren 17koa dela eta ordutik eta uztailaren 1era arteko aldia baino ez dela egon dena antolatzeko; hori aintzat hartuta erabaki da aurten udalekuak ez antolatzea.

Gonzalo Ayo replica que ha explicado por qué el ayuntamiento no ha organizado las colonias y las asociaciones sí y se debe a motivos de salud pública y a complejidad por su tamaño en la organización teniendo en cuenta que el Decreto de posibilitaba la organización de colonias es del 17 de junio y el margen de tiempo para poder organizarlas para el 1 de julio como es habitual ha influido en la decisión adoptada.

Cristina Zamorak esan du osasun-egoera ezaguna zela eta aurretik plana eginda eduki behar zela eta talde politiko guztiei jakinarazi. Elkarteek udalekuak antolatu ahal badituzte, Udalak ez antolatzea borondate-kontua baino ez da. Udalak kontziliazioa errazteko ardura dauka.

Cristina Zamora manifiesta que la situación sanitaria era conocida y se tenía que haber realizado una planificación y compartir la misma con los grupos políticos. Si las asociaciones pueden organizar colonias que el ayuntamiento no las organice es una cuestión de voluntad. El ayuntamiento tiene la responsabilidad de facilitar la conciliación.

Mozioa bozkatu dute eta baietsi egin da: 10 boto alde (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 14 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

